



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko irailaren 11

87. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (19. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, obren kontrataziorako eta laguntza teknikorako kontratu publikoak, esleitu, bete eta likidatzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egin (22. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, gure erkidegoaren lurralde oreka eta landa garapena ahalbidetzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (23. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontusail gehigarrien kreditua ez dadin areagotu izaera sozialeko beste kontusail batzuk murrizteagatik. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (24. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estellerrian iragan ekainaren 30ean izandako txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (25. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoa osatzen duten udalekin, eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egite aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (26. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da premiazko laguntza zuzenak abian jar ditzan, hein batean arintze aldera esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larria. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (27. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da webgune bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko garraio-bide kolektiboaren erabilerarako. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (28. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Abaunzko haitzuloaren sarbideak eta barnealdea txukundu ditzan eta neurriak har ditzan ager daitezkeen aztarnak behar bezala zainduko direla ziurtatze aldera. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (29. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko kanpaina bat abian jar dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (30. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan sei hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa kanpoan kontratatzea arrazoizkoa ote den aztertzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (31. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuan eztabaidatu eta adostu daitezzen Foru Hobetzea aldatzeari buruzko ekimen guztiak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (32. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin gazteekin lan egiten duten gizarte erakundeekiko lankidetzaren programak abiaraz ditzan. Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (33. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan baimendu genetikoki eraldatutako inolako nekazaritza-produkturen entsegu edo laborerik. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (35. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2009ko ekainaren 29an hartutako erabakiaren bidez, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2009ko urriaren 5eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proiektua, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Administrazio publikoek ez dute inoiz alboratzen prozedura administratiboak erraztu eta hobetzeko borondatea. Haien jarduera eta funtzionamenduaren oinarri diren printzipio berriak direla-eta, beharrezkoa da zerbitzu hobe ematea herritarrei, alegia, zerbitzu azkarra, koordinatua, gardena, eraginkorra, eragimenezkoa eta modernoa. Prozedura administratiboetan teknologia berrien erabilerak ez du bueltarik; kultura aldaketa eskatzen du, prozedura administratiboen berrikuspenetik eta teknika administratibo berriak sortzetik hasita.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea mugarria izan zen egungo garaiekin bat datorren Administrazio malguago eta modernoagoa lortzeko bidean, eta, horrekin batera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren errealitatera moldatutako esparru juridikoa eratu zuen. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeak, berriz, egiazko administrazio elektronikoa pausoz pauso, osotara eta norabide asko kontuan hartuta gauzatzeko testuingurua eratu zuen; administrazio horrek teknologia berrien aldeko apustu garbia egiten du, hartara Administrazioa herritarrengana hurbilduko delakoan eta prozedura administratiboak arindu, malgutu eta, finean, erosoagoak bilakatuko. Helburuetako bat burokrasia murriztea eta administrazio izapideak normalizatzea da.

Testuinguru orokor eta iraunkor hau ez da salbu gelditu krisi ekonomiko latz baten astindutik. Administrazio Publikoa ahalegindu behar da suspertze ekonomikoaren eragile gisa jarduten, herri-

tarrengan konfiantza ernatu eta jarduera pribatua bultzatuko duten tresnak sortuz. Horretarako, lan administratiboan zama arindu, erraztu eta ezabatu ere egin behar du, bereziki jarduera ekonomikoak ezarri, negozio berrietarako ekimenak sustatu eta enpresak sortzea helburu duten prozeduretan.

Nafarroako Gobernuak eta Foru Parlamentuak buru-belarri heldu diote zeregin horri, eta jadanik ezarrita dauden beste neurri batzuekin batera, foru lege honen bidez administrazio-lanak errazteko neurri administratibo multzo bat aurkezten dugu, pertsona fisiko edo juridikoei Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedea dutenak. Era berean, beste xede bat esparru juridiko berri bat eratzea da, izapide eta prozedurak gutxitzen lagunduko duena, bai ekoizpenaren arloko proiektu publikoen sustapenari begira bai negozio eta enpresa berriak sortu eta ezartzeari begira Nafarroako Foru Komunitatean. Hortaz, foru legearen xedetzat hartzen dira, besteak beste, ezinbestekoak diren administrazio-zamak kentzea, enpresa eta lanbide jarduera bultzatzeko lanetan aritzen diren eragileekin harremanak izateko bide berriak ezartzea, administrazio elektronikoaren eta prozedurak erraztu eta modernizatzearen aldeko apustua berrestea; aipatutako alderdi guztiak aintzat hartu behar dira xedapen orokorrak egiterakoan.

Foru lege honetan jaso diren neurrietako batzuk garapen ekonomikoari laguntzeko dira, beste batzuk jarduera ekonomikoak abian jarri eta betetzeko, eta beste batzuk, azkenik, administrazio-izapidetza errazteko.

Lehenbiziko multzoko neurrietako bat Nafarroako garapen ekonomiko, sozial edo lurraldekoari begira garrantzi berezia duten proiektuak foru intereseko inbertsio deklaratzeko da, horren ondorioz, Nafarroako Administrazio Publiko guztiek lehentasunezko eta presako bultzada eman diezaieten.

Bigarren multzokoak askoz gehiago dira, eta horien arteko bat protokoloak egitea da, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzean eragina izan dezaketen prozeduretako bakoitzean beharrezkoak diren izapideak eta betebeharrak bertan jasotzeko; protokoloa tresna argigarria da, herritarrak eskatzen diren izapideen jakitun izan daitezen erabiliko dena. Administrazio-izapidetzarako bulego bat ere sortuko da, informazio, aholkularitza, izapidetza bateratu eta, beharrezkoa denean, ebazpen zerbitzuak modu zentralizatuan emateko, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzearekin zerikusia duten gai edo prozedura guztietan. Nafarroako Gobernuaren Interneteko atarian ere enpresentzako zerbitzuetarako atari berezi bat jarriko da abian. Foru legeak sistema telematikoaren alde egiten

du, enpresen eta Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde publikoen arteko lehentasunezko komunikazio bidea izan dadin; horrekin batera ezarri da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek informazio betebehar horiek berrikusi eta murriztu beharko dituztela.

Eta, azkenik, administrazioa errazteko neurrien artean, xedapen orokorren proiektu edo aurreproiektuetan administrazio-zamei buruzko azterlana egin beharra jasotzen da, xedapen berriek izanen luketen eragina baloratzeko haiek ezarri aurretik, bai eta jarduera ekonomikoak ezarri eta garatzea eragotziko duten oztopo gehiago, beharrik gabekoak, ekarriko ote dituzten argitzeko, zuzentzeko aukera egon dadin. Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuei eskatzen zaie espresuki zeinek bere eskumenekoak dituen prozedurak azter eta erraz ditzala, horretarako behar diren arau-aldaketak sustatuz. Oro har, erantzukizuneko aitorpena eta aurretiazko komunikazioa izanen dira kasuan kasuko enpresa edo lanbide jarduera epe askoz motzagoan hasteko bide emanen duten tresnak, eta egun Administrazioak egiten duen aurretiazko kontrola ondorengoa izanen da aurretiaz, betiere ekimenaren sustatzailearen erantzukizunaren bermearekin eta eskatutako dokumentu guztiak aurkeztuta. Halaber, xede horrekin berarekin arautzen dira baldintzapeko lizentziak. Hala lanbide elkargoen nola jarduera mota honen sustapena xedetzat duten erakundeen inplikazioa handiagoa izatea ezinbestekoa dela ulertzen da. Administrazioak laguntza eman behar du proiektuak eta ikus-onetsiak modu telematikoan aurkezteko. Erregistroko liburuak bitarte elektronikokoak erabiliz eramateko beharra betetzea ere bultzatzen da, betebehar hori dagoen prozeduren berrikuspenarekin batera. Era berean, garrantzi handiko neurritzat hartzen da arautzea dokumentuen ikus-onetsia eta egokitasunekoa, arauak definitutakoak, aukera emanen baitu enpresa edo lanbide jardueren proiektuetako espedienteetan esku hartzen duten lanbide elkargoak Administrazioarekin elkarlanean aritzeko eta, eskuordetuta edo hitzarmen bidez haien esku utzitako eginkizun publikoak eraginkortasunez betetzeko, kasuan kasuko Administrazio Publikoari eginkizun horien zama kenduta.

Aurreko neurrien osagarri, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legearen aldaketa batzuk eginen dira, prozedura batzuk arintzeko eta lineako Administrazioaren jarduera bultzatzeko foru lege honetan jasotako neurri batzuekin.

Laburbilduz, neurri multzo honek zenbait maila desberdinetako teknika batzuk biltzen ditu, enpresa edo lanbide jarduerak ezartzeko xedea dutenak, helburuen artean jarduera ekonomiko horiek sustatzea duten eragileak inplikatuz; horrela, aukera egonen da esparru juridiko arinagoa lortzeko, pizgarria izanen dena pertsona fisikoek edo juridikoek Nafarroako Foru Komunitatean negozio eta enpresa berriak ezartzeko proiektuak aurkez ditzaten.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru lege honen xedea da Administrazioa errazteko neurri batzuk arautzea, pertsona fisiko edo juridikoei Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzea errazteko.

2. Foru lege hau ez da tributuen arloan aplikatuko.

2. artikulua. Helburuak.

Foru lege honen helburuak hauek dira:

a) Bilatzen diren helburuei balio erantsirik ez emateagatik beharrezkoak ez diren administrazio-zamak kentzea.

b) Foru Komunitateko Administrazioarekin eta haren erakunde publikoekin harremanak izateko tresna berriak ezartzea, irmotasun bereziarekin bultzatuz administrazio elektronikoa.

c) Lanbide elkargoek eta entitate publikoek jarduera ekonomikoak arintzen eta abian jartzen parte har dezaten bultzatzea.

d) Kultura administratiboan txertatzea prozedurak errazteak eta modernizatzeak duen garrantzia, eta interes bereziarekin baloratzea alderdi horiek xedapen orokorrak egitean.

3. artikulua. Neurrien sailkapena.

Foru legean jasotako neurriak erdietsi gogo diren helburuen arabera egituratzen dira, honela ezarriz:

a) Garapen ekonomikoa bultzatzeko neurri administratiboak: foru intereseko inbertsioen deklarazioa.

b) Enpresa edo lanbide jarduerak abian jarri eta betetzen laguntzeko neurriak:

b.1) Protokoloak egitea.

b.2) Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa ezartzea.

b.3) Enpresentzako zerbitzuen ataria sortzea.

b.4) Informazioa emateko betebeharra murriztu eta erraztea.

c) Administrazio-izapidetza errazteko neurriak:

c.1) Administrazio-zamak aztertzea.

c.2) Prozedurak berrikustea.

c.3) Erantzukizuneko aitortpena eta administrazioaren aurretiazko komunikazioa arautzea.

c.4) Baldintzapeko lizentziak arautzea.

c.5) Proiektuak eta ikus-onetsiak modu telematikoa aurkeztea.

c.6) Dokumentuen ikus-onetsia eta egokitasuneko ikus-onetsia arautzea.

c.7) Erregistro liburuak eramateko modua erraztea.

II. KAPITULUA

Garapen ekonomikoa bultzatzeko neurri administratiboak

4. artikulua. Foru intereseko inbertsioak.

1. Nafarroako Gobernuak, erabaki bidez, foru intereseko inbertsio deklaratu ahal izanen ditu Nafarroako garapen ekonomiko, sozial edo lurraldekoari begira garrantzi berezia duten proiektuak.

2. Deklarazio hori administrazio-izapidetzaren edozein unetan erabaki ahal izanen da, eta onesten denetik aurrera izanen ditu ondorioak. Era berean, erabakian ezarriko dira moduak, baldintzak eta epeak.

3. Nafarroako administrazio publikoek lehentasunezko eta presako bultzada emanen diete foru intereseko inbertsio deklaraturakoei haien izapideetan.

4. Administrazio prozeduretan jarduera ezartzeko aurreikusi diren eta foru legeetan, foru dekretuetan eta foru aginduetan araututa dauden izapide-etako ohiko epeak erdira murriztuko dira foru intereseko inbertsio deklaraturakoen kasuan, salbu eta eskaera eta errekurtsioak aurkezteari dagozkionak.

5. Era berean, erdira murriztuko dira hirigintza planeamenduaren izapidetzearen, onespeneren eta exekuzioaren arloan ezarriko dauden epeak, haien xedea foru intereseko inbertsio deklaraturako obrak eta instalazioak direnean.

6. Halaber, erdira murriztuko dira obra eta instalazio horien exekuzio, irekitze edo funtzionamendurako beharrezkoak diren lizentziak emateko epeak.

7. Aurreko ataletan jasotakoak eragina izanen du foru legeetan, foru dekretuetan eta foru aginduetan ezarritako epeetan, betiere jatorria Estatuko legeetan ez badute.

III. KAPITULUA

Jarduera ekonomikoak abian jarri eta betetzen laguntzeko neurriak

5. artikulua. Protokoloak egitea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzean eragina duten prozedurak izapidetzeko eskumena dutenek, protokolo batzuk egin beharko dituzte foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, zeinek bere eskumeneko prozeduretako bakoitzean beharrezkoak diren izapide eta betebeharrak bertan jasotzeko. Protokolo horiek lanbide elkargo guztiei eta parte hartzen duten entitate publikoei igorriko zaizkie, eta Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian ere argitaratuko dira. Horrez gain, protokolo horiek etengabe eguneratuko dira.

6. artikulua. Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa.

1. Nafarroako Gobernuak administrazio-izapidetzarako bulego bat sortuko du, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzearekin zerikusia duten gai edo prozedura guztietan informazio, aholkularitza, izapidetza bateratu eta, beharrezkoa denean, ebazpen zerbitzuak modu zentralizatuan emanen dituen unitate administratiboa alegia. Erregelamenduz garatuko dira haren eginkizunak eta atxikipen organikoa.

2. Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa enpresei zerbitzuak emateko eskumena duten gainerako unitate administratiboekin koordinatuta arituko da, eta batera bultzatu beharko dute administrazio elektronikoa, zeinek bere jardun eremuan, eta, zehazki, teknologia berrien erabilera eta izapidetza telematikoa sustatzea, Administrazioaren eta enpresen arteko lehentasunezko bidea izan dadin. Lanbide edo enpresa proiektuak izapidetzean parte hartzen duten entitate publikoekin ere koordinatuz arituko da.

3. Erregelamenduz zehaztuko da enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoaren zerbitzuen katalogoa, beteko dituen informazio, aholkularitza, izapide eta ebazpen zerbitzuak jasoko dituenen. Aipatutako katalogoan beharrezkotzat jotzen diren izapide guztiak sartu ahal izanen dira, tributuen arlokoak barne, arlo hori foru lege honen aplikazio

esparrutik kanpo badago ere, 1. artikulua 2. idatz-zatian xedatu bezala.

4. Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoak erregistroko bulegoaren izaera edukiko du enpresei ematen dizkien zerbitzuei dagozkien prozedura guztietan.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek eskatzen dien laguntza eman beharko diote Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoari, ahal den modurik azkarren eta eraginkorrean.

7. artikulua. Enpresentzako zerbitzuen ataria.

Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa atxikia duen Departamentuak, gainerako departamentu eskudunekin elkarlanean, enpresentzako zerbitzuetarako atari berezi bat jarriko du abian (<http://www.navarra.es>), eta bertako edukiak koordinatuko ditu, horien eguneratzea eta mantentze lanak bermatuz.

8. artikulua. Informazioa emateko betebeharrak.

1. Sistema telematikoa erabiliko da, lehentasunez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen arteko komunikaziorako, arau indardunek dakarten informazio betebeharrak betetze aldera.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko departamentuek enpresei eta haien ordezkari-
ei eskatutako informazio betebeharrak aztertu eta murriztu beharko dituzte.

IV. KAPITULUA

Administrazio-izapidetza errazteko neurriak

9. artikulua. Administrazio-zamen azterketa.

Xedapen orokorren proiektu edo aurreproiektuen memorian edo memorietan administraziozamei buruzko azterlan bat eginen da, arau berriaren eragina aztertzeko, enpresa edo lanbide jarduerak ezarri eta garatzeko beharrezkoak ez diren trabak, garapen ekonomikoa oztoka dezaketanak, ekar ez ditzan, eta administrazioa erraztea eta prozedurak bide telematikoa ezartzea bultzatzeko, hain zuzen ere beti bilatu behar baitira helburu horiek. Azterlan horren eduki zehatza lehen-dakaritzako eskumena duen kontseilariaren foru agindu bidez arautuko da.

10. artikulua. Prozedurak berrikustea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko departamentu bakoitzak bere eskumeneko administrazio prozedurak aztertuko ditu, ahalik eta

izapide gehien erraztu eta/edo kentzeko, izapidetu eta ebazteko epeak murrizteko eta enpresek Administrazioarekiko kudeaketetan dituzten kostuak gutxitzeko xedearekin. Horrekin batera, izapidetze elektronikoen ezarpena bultzatuko dute, tekniko ki posible den neurrian. Horretarako, lanbide elkar goen iritzia kontuan hartuko da, bai eta horiek esku hartzen duten prozedurekin zerikusia duten entitateena ere.

2. Prozedura horiek aztertu ondoren, arauen aldaketak bultzatuko dituzte, beharrezkoa den kasuan, erregelamendu proiektuak egin eta aurkeztuz edo foru legeen aurreproiektuen bidez.

11. artikulua. Erantzukizuneko aitortpena.

1. Erantzukizuneko aitortpena Administrazioaren kontrolpean dagoen enpresa edo lanbide jarduera bat abian jarri nahi duen pertsona batek edo legez hura ordezkatzeko duenak izenpetutako dokumentu bat da, zeinetan aitortzen duen, bere erantzukizunpean, kasuan kasuko enpresa edo lanbide jarduerari ekiteko betebeharrak guztiak, arau indardunetan ezarrita daudenak, betetzen dituela, horren egiaztagiriak badituela eta jarduerak dirauen bitartean beteko dituela hitz ematen duela.

2. Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez arautuko du zein kasutan ekin ahal izanzen zaion enpresa edo lanbide jarduerari behar bezala izenpetutako erantzukizuneko aitortpena aurkeztuz, bai eta bete beharreko beste baldintzak zein diren ere. Eskatutako dokumentazio guztia aurkezteak berekin ekarriko du, besterik gabe, jarduera lizentzia ematea, arau indardunekin bat datorrela egiaztatze baldintzapean betiere.

12. artikulua. Aurretiazko komunikazioa.

1. Aurretiazko komunikazioa dokumentu bat da, zeinaren bitartez enpresa edo lanbide jarduera bat abian jarri nahi duen pertsona batek, edo hura legez ordezkatzeko duenak, Administrazio Publiko eskudunari jakinarazten dizkion jarduera baten hasierari buruzko gertaerak edo elementuak, bertan adierazirik jarduera baldintzatu dezaketen alderdiak eta behar bezala betetzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak erantsita, kasuan kasuko araudian ezarritakoarekin bat.

2. Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez arautuko du zein jardueratan ekin ahal izanzen zaion enpresa edo lanbide jarduerari artikuluhonek aipatzen duen aurretiazko komunikazioa, behar bezala izenpetua, aurkeztuz, bai eta bete beharreko beste baldintzak zein diren ere.

13. artikulua. Erantzukizuneko aitortpenaren eta aurretiazko komunikazioaren aurkezpena eta Administrazioaren kontrola.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak interesa dutenen eskura jarri beharko ditu erantzukizuneko aitortpena eta aurretiazko komunikazioa egiteko ereduak, Nafarroako Gobernuaren Interneteko atarian (<http://www.navarra.es>); eredu horietan argi eta berariaz agertuko dira kasu bakoitzean bete beharreko baldintzak, bai eta horiek onartzen diren prozedura guztien zerrenda ere, etengabe eguneratua.

2. Erantzukizuneko aitortpenak edo aurretiazko komunikazioak ahalmena ematen dio dagokion Administrazio Publikoari edozein unetan egiaztatze, bere ikuskarpen organoen bidez edo zuzenbidearen arabera onartuta dauden beste bitarteko batzuk erabiliz, dokumentuak eta datuak egiazkoak ote diren eta baldintza guztiak betetzen ote diren.

3. Erantzukizuneko aitortpen edo aurretiazko komunikazio batek erantsia duen edo harekin batera aurkezten den funtsezko edozein datu, adierazpen edo dokumentu gezurrezkoa edo okerrekoa bada, egindakoa balio gabetuta geldituko da, eta ukitutako jarduera betetzea galarazita, horren berri izaten den une beretik; bidezko diren erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ere ez dira baztertzen.

4. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren ingurubarrak adierazteko Administrazio Publikoak emandako ebazpenak eragin dezake interesduna kasuan kasuko jardueran hasi aurretik zegoen egoera juridikora lehengoratu beharra, bai eta aldi zehatz baterako xede bera duen prozedura berri bat eskatzeko aukera, hori guztia aplikatzekoak diren araudian ezarrita dagoen moduan, betiere.

14. artikulua. Baldintzapeko lizentziak.

1. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako toki entitateek, enpresa edo lanbide jarduera bati eragiten dioten lizentziak emateko ekintzetan beretan, horiek ukatzea saihesteko klausulak gehitu ahalo dituzte, aplikatzekoak diren legeek ezarritako baldintzak eskatuz, azkartasun eta eraginkortasun administratiboa direla eta.

2. Baldintza horiek eskatu dezakete lizentzia behar duen proiektu baten alderdiak, aplikatzeko den araudiarekin bat ez datozenak, egokitu, osatu edo kentzea, betiere eskatutakoa lege ezarritakora egokitzea erraza denean, funtsezko baldintzak ez ukitzeagatik, eta egin nahi den jarduketa funtsean aldatzen ez bada. Baldintza horiek lizentzia emateko ekintza ezartzen den epean bete beharko dira.

15. artikulua. Proiektuak eta ikus-onetsiak modu telematikoan aurkeztea.

1. Nafarroako Gobernuak sistema telematiko bat jarriko du lanbide elkargoei eta beste entitate batzuei, proiektuaren titularrak ados badaude, edo titularrei beraiei aukera emateko haien enpresa edo lanbide jardueren proiektu teknikoak eta haien ikus-onetsiak biltoki batean gordetzeko. Biltoki horretan gordetzeak salbuetsi eginen ditu titularrak Foru Komunitateko Administrazioan izapidetu beharreko prozedurei dagozkien administrazio espedienteetan aurkezteko betebeharretik, aski izanen baita proiektuari biltokian emandako kodearen aipamena egitea. Horretarako, behar diren hitzarmenak izenpetuko dira lanbide elkargoekin. Nafarroako toki entitateak sistema honi atxiki ahal-ko zaizkio.

2. Proiektu horiek modu telematikoan aurkezteak erregistroan aurkeztean dituen ondorio administratibo berak izanen ditu.

16. artikulua. Dokumentuen ikus-onetsia eta egokitasun ikus-onetsia.

1. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako toki entitateek, berariazko arauak edo hartzaileak elkargoaren ikus-onetsia eskatzen ez duten kasuetan, enpresa edo lanbide jardueren proiektuetako prozeduretan esku hartzen duten lanbide elkargoei eskuordetu ahal izanen dizkiete, edo haiekin hitzartu, aurkeztutako dokumentazioa eta proiektuen zuzentasun teknikoa egiaztatzeke eginkizunak, dokumentuen ikus-onetsia eta egokitasuneko ikus-onetsia emanez, hurrenez hurren; elkargoaren beraren ikus-onetsia aurrekoetatik bereizirik emanen da, lanbide elkargoei buruzko araudian ezarzen diren eduki eta ondorioekin.

2. Dokumentuen ikus-onetsia dagokion lanbide elkargoak emanen du, behin egiaztaturik aurkeztutako dokumentazioa osatuta dagoela eta kasuan kasuko araudiak eskatzen duenarekin formalki bat datorrela; fede eginen du aurkeztutako proiektuak aplikatzekoak diren legeek eskatzen duten dokumentazio guztia duela, eta ez du alde aurretik erabakiko haren edukia lege horiekin bat datorrela. Horretarako, ikus-onetsia emanen duten lanbide elkargoei zerrenda batzuk emanen zaizkie, hitzarmenetan sartutako prozeduretako bakoitza izapidetzean eskatzen diren dokumentu guztiak adierazita.

3. Egokitasuneko ikus-onetsia dagokion lanbide elkargoak emanen du, behin egiaztaturik lan profesionalaren dokumentazioa zuzena eta formalki osoa dela, proiektuaren edukiak zehaztaperen teknikoari buruzko arauak betetzen dituela eta apli-

katzekoak diren gainerako arau indardunekin bat datorrela berमतुता dagoela alegia.

4. Ikus-onetsi horiek emateak ez du proiektuaren egilea den profesionala dagokion erantzukizunetik salbuetsiko. Edozein kasutan ere, lanbide elkargoek eskatuko dute elkargoko kideek aurkeztutako proiektuetan berariaz zehaztea, esku hartzen duen profesionalaren sinaduraren ondoan, kide horrek bere erantzukizunpean onartzen duela proiektuaren edukia aplikatzeko den araudiarekin bat datorrela.

5. Administrazio Publikoak osatutzat hartuko du dokumentuen ikus-onetsia atxikita aurkezten den proiektua, eta osatu eta baliozkotzat egokitasun ikus-onetsia daukana, baina horrek ukatu gabe bi kasuetan dagokion ikuskapen eta zehapen ahalmenaz baliatzea.

17. artikulua. Erregistro liburuak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar diren baliabideak ezarriko ditu erregistro liburuak eraman behar dituzten enpresa eta pertsona erabiltzaileek zeregin hori formatu elektronikoan bete ahal izan dezaten. Era berean, horietan pixkanaka eginbideak kentzen joatea bultzatuko da.

Xedapen gehigarriak

Lehen xedapen gehigarria. Prozeduren berrikuspena.

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, 10. artikuluan aurreikusitako prozedurak berrikusiko dira.

Bigarren xedapen gehigarria. Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoaren funtzionamendua.

1. Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoa jarriko da abian.

2. Funtzio publikoaren arloko eskumena duen kontseilariak emandako foru aginduaren bidez, Jarduera Ekonomikoak Izapidetzeko Bulegoari beharrezkotzat jotzen diren langile publikoen eginkizunak atxikiko zaizkio, zein den ere haien atxikipen organikoa.

Xedapen indargabetzailea

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Azken xedapenetan lehena. Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen aldaketa.

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean aldaketa hau egin da:

Bat. 49. artikulua 3. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“3. Ezin izanen da jarduera sailkatuetarako obra lizentziarik eman, harik eta behar den jarduera lizentzia eman arte. Aurrekoa gorabehera, ingurumenean eragin txikia duten zenbait jardueraren kasuan, eta erregelamenduz ezarriko diren modu eta baldintzetan, obra lizentzia eman ahal izanen da jarduera lizentzia izapidetzen ari den bitartean. Kasu horietan, obren exekuzioa sustatzailearen ez beste inoren erantzukizunekoak izanen da, horrek jarduera lizentzia eman edo ukatzea baldintzatu gabe, ez eta ingurumenaren arloko erakundeak ezartzen dituen baldintzetara egokitzea ere, beharrezkoa eta nahitaezkoa baita.”

Bi. 52. artikulua 3. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“3. Arestiko idatz-zatiak hizpide duen epean ebazpenik eta jakinarazpenik ez egoteak proiektuak Ingurumen eraginaren ebaluazioa ez duela behar esan nahiko du.”

Hiru. 58. artikulua 4. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“4. Irekitzeko baimena lortu aurretik, energia elektrikoaren hartune edo hedapen, erregai likido zein gasezkoen erabilpen, edateko uraren horniketa baimenak eta jardueran aritzeko nahitaezkoak diren gaineko baimenak eskuratu ahal izanen dira, erregelamenduz kontrakoa zehazten den kasuetan izan ezik. Baimen horiek irekitzeko lizentzia lortzearen menpe egonen dira, hura ukatuz gero beste baimenak ere besterik gabe ukatuko baitira, eta hornidura berehalakoan eten beharra ekarriko du.”

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Terrorismoa da herritarrek gaur egun pairatu behar duten gaitz handienetako bat, biktimei eta haien senideei eragiten dien atsekabea izugarria baita; atsekabe hori gizarteak berak ere jasaten du, eta horren aurrean ez dago elkartasuna eta aintzatespena erakustea baino; atsekabe hori erailketen bidez azaltzen da, baina baita mehatxuen, bahiketen, estortsioen eta xantaien bide ere; fanatikoek, izan ere, horiek denak baliatzen baitituzte euren helburuak erdietsiko dituztelako ilusio faltsuarekin.

Zorionez, gizartearen gehiengo handi batek irmotasunez gaitzesten ditu ekintza terroristak, eta hortaz, proposamena aurkeztu duen taldearen

ustez ez dago soberan gizarte hori bera ordezkatzaren duten erakundeek, eta zehazki Nafarroako Parlamentuak, terrorismoari aurre egiteko ez ezik ekintza basati horien biktimei ordaina emateko ere balio duten tresnak abian jartzea. Hartara, gure ustez egokia da, ordaina erabatekoa izan dadin, lege-mekanismoak artikulatzea, ekidite aldera hiltzaile terroristek nahiz haien ekintzekin pozten direnek eta terrorismoa postulatu politikoak erdies-teko tresna baliagarri gisa babesten dutenek terrorismoa goratzen eta biktimak laidotzen jarraitu ahal izatea.

Sekula baino beharrezkoagoa da erakunde publikoek, baita Parlamentu honek ere, biktimen aldeko konpromiso zehatza izenpetzea, zaurien minari edo senide baten galeraren minari ez daki-en gehitu beste nahigabe bat, hain zuzen ere hiltzaileak omenaldiak jasotzen ikusi beharra edo haien argazkiek gune publikoak betetzea hilketak gertatu diren leku beretan eta hildakoen senideek igaro behar duten leku beretan. Sekula baino beharrezkoagoa da Nafarroako erakundeek indarrak batzea, ekidite aldera gisa horretako ekintzak, ekidite aldera terrorismoak eta bere inguruneak jarrera anbiguoetan babeslekua aurkitu eta, hala, terrorismoak biziraun dezan.

Espainian, abenduaren 30eko 13/1996 Legearen bitartez arautu zen terrorismoaren biktimen-tzako laguntza –ondoren, aurrekontu legeen bidez aldatu izan da–, eta batez ere urriaren 8ko 32/1999 Legearen bitartez, zeina martxoaren 12ko 2/2003 Legeak aldatu baitzuen.

Nafarroan, aldiz, Estatuko araudian biktimen-tzako ezarritako laguntzak indartzeko eta osatzeko lege-testu berekiak onetsi dituzten autonomia erkidegoetan ez bezala, ez dugu legearen mailako araurik, eta legebiltzar honen ustez hori zuzendu beharra dago; izan ere, Nafarroa da terrorismoak gehien zigortutako gizarteetako bat eta talde terroristak jakin baten helburu nagusietako bat. Nafarroak, horrenbestez, gure eginahala gehitu behar diogu beste batzuenari, biktimenganako aintzatespena eta ordaintza ahalik eta osoena izan dadin

Foru Komunitatean ere; denok dugu, izan ere, biktimenganako zor moral eta material bat, kasu askotan nekez ordain daitekeena, baina, gutxienez ere saiatu behar dugu aintzatespena, laguntza eta elkartasuna ahalik eta handiena izan daitezen.

Parlamentu honen aburuz, erakundeen egina-hala gehitu behar diogu Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek terrorismoaren eta terrorismoa babesten dutenen aurka egiten duten ahalegin adoretuari, biktimek, eragin zaien atsekabearen ordainetan, dagokien tokia har dezaten. Azken finean, pairatu duten atsekabearen ordainetan babes handiagoa eman nahi zaie.

I. KAPITULUA Arau orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege proposamen honek xede du omenaldia egitea eta aintzatespenik handiena adieraztea ekintza terroristak pairatu dituztenei, inguruabar eta beharrezko pertsonalak, familiarrak eta sozialak artatzeko zenbait neurri eta jarduketara artikulatuta Nafarroako Foru Komunitateak arlo horietan esleiturik dituen eskumenen esparruan.

2. artikulua. Aplikazio esparrua eta onuradunak.

1. Foru lege hau banda edo talde armatuetan sartutako pertsonak edo pertsonak edo bakea eta herritarren segurtasuna larriki kaltetzeko xedez aritzen direnek egindako terrorismo ekintzen biktimei eta kaltetuei aplikatuko zaie –ekintza horiek Nafarroako Foru Komunitatean nahiz handik kanpo, Espainiako lurraldean nahiz atzerrian, gertatu–, baldin eta biktimak horiek nafar izaera politikoa badute lege hau indarrean den bitartean eta baldin eta ez badute kontzeptu hori dela-eta bestelako laguntzarik jaso beste autonomia erkidego batean, eta alde aurretik egiaztatuta Estatuko Segurtasun Indarrek eta Kidegoek nahiz kasuko agintari judizialak ebazpen bidez ekintza terroristatzat jotako ekintza batetik heldu dela kaltea.

2. Foru lege honen ondorioetarako, kaltetutzat hartuko dira biktimaren ezkontide legez edo izatez ez berezia edo ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren bidez lotuta dagoen pertsona, odolbidezko bigarren mailako familiartekoak eta biktimarekin modu egonkorrean bizi eta haren mende dauden pertsonak.

3. Foru lege hau orobat aplikatuko zaie kaltetutako pertsona juridikoei nahiz irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio, entitate eta erakundeei, baldin eta haien xede nagusia bada terrorismoaren biktimen interesak aldezea eta ordezea.

4. Foru lege honetan ezarritako laguntzen onuradun izanen dira orobat, erregelamendu bidez jasotako moduan eta zenbatekoan, bere ibilgailua atentatu batean edo ihes egiteko erabiltze aldera terroristek atxikitako pertsonak, bai eta mehatxupean edo babespean bizi izateagatik bere lana normaltasunez egiteko zailtasunak dituztenak ere.

3. artikulua. Kalte-ordainen, laguntzen eta dirulaguntzen zenbatekoak eta ezaugarriak.

1. Lege honetan ezarritako kalte-ordainen, laguntzen eta dirulaguntzen zenbatekoa, oro har, Estatuko Administrazio Orokorrak kasu beretarako ezarritakoen ehuneko 30ekoaren parekoa izanen da; zenbatekoak, guztira, ezin izanen du egin kaltetutako ondasunen balioetik goiti.

2. Lege honetan ezarritakoari jarraikiz emandako laguntzak beste edozein erakunde publikok edo pribatuk –aseguru entitateak barne– kasu beretarako ezarritakoen subsidiario eta osagarri izanen dira, eta behin bakarrik emanen dira. Horrek ez dakar Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartzea inolako erantzukizun subsidiariorik.

4. artikulua. Laguntza motak.

1. Ondoko laguntza dagokie biktimei foru lege honen babesean:

a) Kalte fisikoengatik kalte-ordainak.

b) Kalte psikikoengatik kalte-ordainak, bidezko den kasuetan.

c) Kalte materialen konponketa.

d) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste dirulaguntza batzuk.

e) Osasun, hezkuntza, lan, prestakuntza eta etxebizitza arloko laguntza.

5. artikulua. Laguntza emateko baldintzak.

1. Foru lege honetan ezarritakoa baliatzeko, nahitaez bete behar dira ondoko baldintzak:

a) Eragindako kalteak ekintza terrorista baten ondorio izatea. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek edo kasuan kasuko epaiek ezarriko dute zer den ekintza terrorista.

b) Interesdunak salaketa jartzea organo eskudunetan eta Gobernuaren Ordezkaritzak gertakariari buruzko ziurtagiria ematea.

c) Interesdunek alde aurretik eskatzea Estatuko Administrazio Orokorrari araudian kasu beretarako ezarritako kalte-ordainak eta konpentsazioak. Baldin eta eskabidea Administrazio zentralari aurkeztu bazaio eta, nahiz eta foru lege honetan laguntzen onuradun izateko ezarritako baldintzak

bete, ez baldin bada eskaria aintzat hartu, eskubi-dea izanen du eskatzaileak foru lege honetan ezarritako kalte-ordainak, laguntzak eta dirulaguntzak jasotzeko.

d) Interesdunak aldez aurretik konprometitzea kasuari buruzko informazio guztia ematera, hala beste administrazio batzuetatik jasotakoari buruzkoa nola kontratua duen aseguru enpresa baten kargura jasotakoei buruzkoa. Halaber, interesdunak konpromisoa hartuko du Foru Administrazio organo eskudunei beharrezkoa den informazio guztia emateko kasuan-kasuan ezarritako fiskalizazioari begira.

2. Artikulu honetako c) eta d) letretan ezarritako baldintzak Nafarroako Gobernuaren foru dekretu bidez salbuetsi ahalko dira, baldin eta Administrazioak datu horiek ofizioz baditu.

3. Interesdunei terrorismoaren biktima direla onartzeko administrazio ebazpenak baliagarriak izanen dira, betiere, kasuko administrazio espedienteak izapidetzeko eta ebazteko.

6. artikulua. Eskabideak.

1. Foru lege honetan ezarritako kalte-ordainak, konponketak edo laguntzak emateko administrazio prozedura ofizioz nahiz interesdunek eskatuta abiatuko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak; eskabidean ondokoak jasoko dira: eskatzailearen datu pertsonalak eta kasu zehatzaren aipamena, jasandako kalteen azalpena eta aseguru entitatearen batekin edo batzuekin kontraturik ote zuen, aseguratzailearen sozietatearen izena eta hitzartutako poliza edo polizen zenbakia zehaztuta. Eskabidean orobat jasoko dira lege honen arabera laguntzak jasotzeko izapideak abiatze aldera ezinbestekoak diren datuak eta ziurtagiriak.

2. Foru lege hau baliatzeko eskabideak kasuko atentatu edo ekintza terroristaren egunetik aitzina aurkeztuko dira, edo sendatu ondoren edo ondorioen zenbaterainokoa ezarritakoan, kalte fisikoen edo psikikoen kasuan.

3. Foru lege hau indarrean sartu aurretik ekintza terrorista baten biktima izan diren pertsona guztiak baliatu ahal izanen dituzte foru lege honetan ezarritako laguntzak.

4. Nafarroako Foru Komunitatean, eskabideak ebazteko epea ezin izanen da izan sei hilabetetik goitikoa, Estatuko Administrazio Orokorragi laguntza eskabidea ebazten duen egunetik aitzina.

7. artikulua. Laguntzen onespena.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio foru lege honetan ezarritako kalte-ordainak, konponketak, laguntzak eta dirulaguntzak onestea; hartara, egin beharreko kreditu transferentzia edo gaikuntzak eginen ditu foru lege honen aplikaziotik heldu diren kalte-ordainei aurre egiteko.

2. Biktimentzako laguntzen funtsezko zati gisa, Nafarroako Gobernuak behar adina lankidetzak hitzarmen eginen ditu Foru Komunitatean jarduten diren finantza entitateekin, terrorismoaren biktimei eta kaltetutako pertsonen baldintzarik onenetan eskaintzearen finantzaketa.

II. KAPITULUA

Kalte fisiko edo psikikoengatikoko kalte-ordainak, kalte materialen konponketa eta mendekotasun egoeragatikoko kalte-ordainak

I. atala

Kalte fisiko edo psikikoengatikoko kalte-ordainak eta kalte materialen konponketa

8. artikulua. Kalte-ordainen eta konponketen edukia.

Kalte-ordain gisa, biktimen pairatutako kalte fisiko edo psikikoengatikoko laguntzak emanen zaizkie biktimei edo haien senide gertuenekoei, ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremana duten pertsonen eta, biktima hilez gero, harekin bizi eta haren mende dauden pertsonen. Kalte materialengatikoko konponketak kaltetutako ondasunen titularreri eginen zaizkie.

9. artikulua. Kalte fisiko edo psikikoak.

1. Kalte fisikoengatikoko kalte-ordainak emanen dira ondoko kasuetan: heriotza, baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua, ezintasun iraunkor partziala, aldi baterako ezintasuna eta baliaezintasun gabeko lesio iraunkorra.

2. Kalte psikikoengatikoko kalte-ordainak emanen dira ondoko kasuetan: baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua eta ezintasun iraunkor osoa.

10. artikulua. Kalte materialen konponketa.

1. Kalte materialen konponketako zenbaterainokoa ondokoak sartuko dira: pertsona fisikoen etxebizitzetan eragindako kalteak, merkataritza edo industriako establezimenduetan edo enpresetako ekoizpen-elementuetan, alderdi politiko, sindikatu eta gizarte-erakundearen egoitzetan nahiz ibilgailuetan

eragindakoak, betiere lege honetan ezarritako baldintzetan eta mugekin.

2. Ekintza terroristek eragindako kalte materialak konpontze aldera Nafarroako Gobernuak foru lege honen babesean ematen dituen laguntzak Estatuko Administrazio Orokorrak kontzeptu berengatik emandakoen osagarri izanen dira eta, kasua bada, aseguru konpainiek edo Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak emandako kalte-ordaina.

3. Baldin eta artikulua honetan ezarritako laguntzen onuradunak aseguru entitate baten edo Aseguruen Kontentsazio Partzuergoaren kalte-ordainik jasotzen badu kontzeptu bera dela-eta, Nafarroako Foru Komunitateak kalte-ordainaren zenbatekoa kenduko du laguntzatik. Kalte-ordaina Nafarroako Foru Komunitateak emandakoaren berdina edo handiagoa bada, Foru Komunitateak ez du inolako zenbatekorik ordainduko.

4. Merkataritza edo industriako establezimenduetako edo enpresetako ekoizpen-elementuetako kalteen konponketan sartuko da establezimendu horiek berriz ere funtzionatzen jartzeko beharrezkoa den zenbatekoaren balioa, eta hori ez da eragozpen izanen foru lege honetako 7. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitako finantza-entitateekiko lankidetzat hitzarmenak egiteko.

5. Alderdi politiko, sindikatu eta gizarte-erakundeen egoitzetan eragindako kalteen konponketan sartuko dira funtzionamendu-baldintzak lehengoratzeko beharrezkoak diren jarduketak, hondatutako altzariak eta elementuak barne.

6. Ibilgailuetan eragindako kalteen konponketan muga izanen da behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den gastuaren zenbatekoa. Baldin eta ibilgailua deseginda gelditzen bada edo konponketaren zenbatekoa haren balio erreala baino gehiagokoa bada, gisako ezaugarri teknikoekiko eta gisako erabilera-baldintzekiko ibilgailu batek merkaturatuen duen balioaren parekoa izanen da kalte-ordaina. Adu-txostenean jasota ageriko da, kasuan-kasuan, konponketen edo bestearen orde emandakoaren balioa. Bakarrik konpondu ahalko dira ibilgailu partikularretan eragindako kalteak eta pertsonen nahiz salgaien lurreko garraiorakoek, salbu eta titulatasun publikoek, pairatutakoak. Kalte-ordaina ordaintzeko ezinbesteko baldintza izanen da ibilgailuak indarrean izatea derrigorrezko aseguru atentatua gertatu den unean.

11. artikulua. Pertsona fisikoen etxebizitzetan eragindako kalteak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, ohiko etxebizitza da gutxienez ere urtean sei hilabetez per-

tsona edo familia-unitate baten egoitza den eraikina. Orobat hartuko da ohiko etxebizitzat baldin eta okupazioa urtean sei hilabetez beheitikoa bada baina etxebizitzaren okupazioa hasi zen egunetik iragandako denboraren erdiaren parekoa izan bada gutxienez ere.

2. Pertsona fisikoen ohiko etxebizitzaren konponketan ondokoak sartuko dira: etxebizitzaren galera erabatekoa; egituraren, instalazioetan eta altzarietan izandako kalteak; eta atentatuaren aurreko bizigarritasun-baldintzak leheneratzeko berritik jarri beharrezkoak diren gauzak eta tresnak, salbu eta luxuzko elementuak.

3. Baldin eta kaltetutako etxebizitza ez bada ohiko bizilekua, luxuzkoak ez diren elementuetan eragindako kalteen ehuneko 80ko muga izanen du laguntzak; ehuneko hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira jaso izan diren laguntzak.

4. Konponketak betiere hartuko ditu etxebizitzetako elementu pribatiboak. Etxebizitza dagoen eraikineko elementu komunetan eragindako kalteak ere hartuko ditu, baldin eta horiek Nafarroako Foru Komunitatean badaude.

5. Konponketaren zenbatekoa etxebizitzaren jabeen edo konponketa lege egin edo agindu duten maizterrei edo okupatzaileei ordainduko zaie. Jabetza horizontalaren araubideari atxikitako higiezin-tako elementu komunetan eragindako kalteen kasuan, konponketaren zenbatekoa jabeen erkidegoari ordaindu ahalko zaio.

6. Nafarroako Foru Komunitateak behin-behineko ostalua emanen die ekintza terroristek eragindako kalteak direla-eta bere ohiko etxebizitza aldi baterako erabiltzerik ez dutenei; hartara, ordaindu egingen die kaltetutako etxebizitzaren gisako baten alokairua edo hotel-establezimendu bateko ostalua konponketa lanek iraun bitartean, baldin eta konponketa lanak ez badira onuradunaren erruz luzatzen.

12. artikulua. Zenbatekoak.

1. Nafarroako Foru Komunitateak kalte fisiko edo psikikoengatik kalte-ordainak edo kalte materialen konponketagatik eman aurretik, Estatuko Administrazio Orokorrari eskatu behar zaizkio bere araudian kapitulu honetako kasuetarako ezarritako kalte-ordainak eta kontentsazioak.

2. Nafarroako Foru Komunitatek ehuneko 30 igoko ditu Estatuko Administrazioak emandako zenbatekoak.

3. Kalte materialak konpontzean ezin izanen da inolaz ere gainditu kaltetutako ondasunen balioa.

II. atala Mendekotasun egoeragatiko kalte-ordainak

13. artikulua. Kalte-ordainen edukia. Mendekotasuna.

1. Ekintza terroristaren ondoriozko mendekotasun egoeragatiko kalte-ordain gisa, laguntzak emanen zaizkie biktimei, baldin eta Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera mendekotasun egoera onartu bazaie.

2. Mendekotasun egoeragatiko kalte-ordainak emanen dira arlo horretako eskumena duen departamentuak mendekotasuna, zeinahi gradu eta mailatakoa, onartutakoan.

3. Atal honetan aipatzen den mendekotasun egoera onartze aldera, departamentuak presako balorazio prozedura bat ezarriko du, egoki iritziz gero balio ahalko duena mendekotasunaren eta horren zergatien eremuko larrialdi egoerarako.

4. Bateragarriak izanen dira mendekotasun egoera onartzeagatiko kalte-ordainak direla-eta jasotako zenbatekoak eta biktimek jasotzeko eskubidea duten bestelako kalte-ordain oro, non eta ez zaizkion kontzeptu berari zor. Edozein modutan, bateragarriak izanen dira Biktimari Laguntzeko Banakako Programan ezar litezkeenak eta Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 14. artikuluan aipatzen diren presazio ekonomikoak.

14. artikulua. Mendekotasun egoeragatiko kalte-ordainen zenbatekoak.

Mendekotasun egoera onartzeagatiko kalte-ordainak graduaren arabera ezarriko dira; halatan, ondoko ehunekoen arabera igoko dira Foru Komunitateak kalte fisiko eta psikikoengatiko kalte-ordain gisa emandako zenbatekoak:

1. Ehuneko 30eko igoera III. gradua –mendekotasun handia, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

2. Ehuneko 20ko igoera II. gradua –mendekotasun larria, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

3. Ehuneko 10eko igoera I. gradua –tarteko mendekotasuna, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

15. artikulua. Mendekotasunagatiko babes-maila osagarria.

1. Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 7.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateak babes-maila osagarria ezarriko du mendekotasuna duten pertsonentzat, baldin eta haien zaintzaile ez-profesionala, aipatu legeko 14.4 artikuluan aipatzen dena, atentatu terroristaren bateko biktimei suertatzen bada eta ondoko baldintzak batera gertatzen badira:

a) Bien arteko familia lotura egotea eta lotura hori kontuan hartu izana mendekotasunagatiko laguntzak lortzeko, arloko foru araubideak ezarritakoaren arabera.

b) Atentatu terroristaren ondorioz zaintzaile ez-profesionala hiltzea edo II. graduko mendekotasun egoera –mendekotasun larria– edo III. graduko –mendekotasun handia–, edozein mailatakoa, aitortzea hari.

2. Artikulu honetan ezarritako babes-maila osagarria 9.000 euroko laguntza bat izanen da, zeina barne arloko departamentu eskudunaren funts berekien kargura finantzatu baita eta izaera subjektiborik ez baitu izanen.

III. KAPITULUA Dirulaguntzak

16. artikulua. Dirulaguntzak ematea

1. Dirulaguntzak eman ahalko zaizkie irabazi asmorik gabeko erakundeei, entitateei, fundazioei eta elkartei, baldin eta haien xede nagusia bada terrorismoaren biktimei interesak aldezte eta ordezte, biktimei egoera pertsonal nahiz kolektiboak arintzera bideratutako laguntza programak garatzea edo biktimei nabarmentzeko jarduerak programak edo terrorismoaren gaitzaren ezein agerraldiren aurkako gizarte-kontzientziazio eta hezkuntzara bideratutako jarduerak garatzea eta betetzea bilatzen badute, bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak aldeztuz.

2. Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidezko garapenaren bitartez, dirulaguntza horien ematea nahiz dirulaguntzen kontzeptuak arautzeko baldintzak ezarriko ditu.

3. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, urtean behin, hezkuntza programa bat zabalduko du Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak jasotzen dituzten bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan, egoki irizitako iraupea izanen duena, terrorismoaren aurkako bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak

jaso eta islatuko dituen eta gazteak kontzientziatuko dituen hitzak ideia demokratikoak aldezteko bitarteko eta modua den aldetik duen balioari buruz. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuei ere eskainiko zaie aukera hori.

IV. KAPITULUA Laguntzan arloko ekintzak

17. artikulua. Eremua.

Foru lege honek arautzen dituen laguntza-prestazioak ondoko eramuetakoak izanen dira:

- a) Osasun laguntza.
- b) Irakaskuntza.
- c) Lana.
- d) Etxebizitza.

17. bis artikulua. Osasun laguntza.

1. Nafarroako Foru Komunitateak, Osasunbidearen bitartez, biktimaren nahiz haren gertueneko senideen edo harekin modu egonkorrean bizi diren pertsonen osasun laguntza hartuko du bere gain, baldin eta laguntza hori ez bada aseguru publiko edo pribatu bidez ziurtatzen. Posible ez den kasuetan eta laguntza beste zentro batzuetan eman behar denean, sorturiko gastuak ordainduko dira.

2. Osasun laguntzan sartuko dira jasandako lesioetatik heldu diren tratamendu medikoa, prote-siak jartzea, kirurgia-operazioak eta ortopedia-beharrizanak.

18. artikulua. Laguntza psikologikoa.

Laguntza psikologikoa hiru motatakoa izanen da:

1. Berehalako laguntza psikologikoa, biktimaren nahiz haren gertueneko familiartekoei edo harekin modu egonkorrean bizi diren pertsonen ematen zaiena. Hartara, Nafarroako Gobernuak bere balibide berekiak erabiliko ditu edo, bestela, laguntza mota horretan adituak diren beste erakunde edo entitate pribatuenak.

2. Ondorioetarako laguntza psikosoziala. Biktimen nahiz gertueneko familiartekoen eta haiekin modu egonkorrean bizi diren pertsonen izanen duten eskubidea laguntza hori jasotzeko, eta, medikuaren agindua jaso ondoren, atentatuen eragindako edo agerian utzitako nahaste psikologikoa agertzen diren unetik jaso ahalko da. Behar duten laguntza pertsonala eta soziala ere ematen zaie, Nafarroako Gobernuak Osasun eta Gizarte Ongizate departamentuen esku hartuta. Beharrezkoa baldin bada, hitzarmenak egin ahalko dira entitate edo erakunde pribatuekin, zerbitzu publi-

koek eman ezin dituzten prestazioak ziurtatze aldera, eta Nafarroako Gobernuak finantzatu du beharrezkoak diren banakako zerbitzu eta tratamendu horien kostua.

3. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako laguntza psikopedagogikoa, baldin eta, haiek nahiz haien gertueneko familiartekoen eta haiekin modu egonkorrean bizi diren pertsonen pairatutako atentatu terroristen baten ondorioz, ikaskuntza arloko zailtasunak edo gizarte-egokitzapeneko arazoak badituzte. Laguntza hori ere doakoa izanen da, Nafarroako Gobernuak zerbitzuek bere gain hartuko baitute.

19. artikulua. Ikasteko beka eta laguntzak.

1. Ikasteko laguntzak ematen dira baldin eta, ekintza terroristen baten ondorioz, ikasleak berak nahiz haren gurasoen, tutoreen edo zaintzaileek kalte pertsonalak –garrantzi berezikoak nahiz bere ohiko lanbidean aritzeko ezgaitzen dituztenak– jasan badituzte. Kalte horien garrantzi berezia baloratzean, pairatutako lesioek biktimaren bizitzan eta familia-ekonomian dituzten ondorioei erreparatuko zaie. Betiere, baliaiezintasuna dakarten lesioak edo heriotza gertatzen denean.

2. Ikasteko laguntzetan sartuko dira hala zerbitzu akademikoen tasak ordaintzera bideratutakoak nola eskolako materialeko, garraio, jantokiko eta, kasua bada, familiaren etxebizitzatik kanpo bizitzeko gastuak.

3. Laguntza horiek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan ematen dira, baina aparteko kasuetan beste erkidego batzuetako ikastetxetara hedatu ahalko dira, eta lanerako prestakuntza, lanbide heziketa edo unibertsitate ikasketak bukatu arte luzatuko dira, baldin eta errendimendua –gerta litekeen atzerapen psikopedagogikoa onartuta– egokitzat jotzen bada.

4. Ikasleak ezin izanen du jaso ikasturte bakoitzeko beka bat baino gehiago, nahiz eta aldi berean egin zenbait ikastaro edo karrera. Bateriaezinak izanen dira terrorismoaren biktimei emandako beka eta beste administrazio publiko batzuek edo erakunde pribatuek kontzeptu beragatik emandakoak.

5. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak lehentasuna ematen die terrorismoaren biktima diren ikasleei emandako laguntzei eta bekei, eta, salbuespenez, gainontzeko ikasleei oro har emandako zenbatekotik goitikoak izatea ezarri ahalko du, familia-unitatearen errentaren muga arabera, zeinetan ez baitira aintzat hartuko foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz emandako laguntzak eta kalte-ordainak.

6. Ikasle horientzako ikasteko beka eta laguntzak kasuan kasuko deialdian ezarritako prozedurari eta epeei jarraikiz eskatu eta emanen dira.

20. artikulua. Lan arloko laguntzak.

Nafarroako Gobernuak, ekintza terrorista baten ondorioz bere lana arazorik gabe egitea eragozten dieten kalteak pairatu dituzten pertsonen lan arloan laguntzarik onena emate aldera, birlaneratzeko planak eta autoenpleguko programak taxutuko ditu, pertsona horiek hobeki egoki daitezen lanera. Halaber, egoki irizitako laguntzak sortuko ditu, ukituei enpresa berriak sortzen laguntzeko. Arlo horretako eskumena duen departamentua arduratuko da programa eta plan horiek sortzeaz.

21. artikulua. Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzea.

Atentatu terrorista batek kaltetutako pertsonen lehentasunez eskuratu ahalko dute babes ofizialeko etxebizitza bat, arlo horretako foru araudian kasu horietarako egiten den erreserbari jarraikiz.

V. KAPITULUA
Ohorezko sariak eta
elkartasun funtsen bermea

22. artikulua. Sariak ematea.

Nafarroako Gobernuak, kasuan-kasuan gertatzen diren inguruabarrak alde zuzenetik baloratuta, arlo horretako foru araudian ezartzen diren sariak eman eta ohoreak egin ahalko dizkie biktimei eta terrorismoaren aurka nahiz balio demokratikoen defentsan nabarmendu diren erakundeei eta entitateei, nafar gizarteak haiei elkartasuna erakuste aldera eta Nafarroako erakundeek, Gobernuak ordezkaturik, aintzatespena erakuste aldera.

23. artikulua. Elkartasun funtsen bermea.

Nafarroako Gobernuak, biktimen beharrezko lehentasunezko eta berehalakoenei erantzuteko adina funts ziurtatze aldera, ekonomia arloan hartu beharreko neurriak hartuko ditu funtsa bideragarria izan dadin biktimek, lege honetan ezarritakoari jarraikiz, kasuan kasuko kalte-ordainak jaso arte.

VI. KAPITULUA
Enplegu publikoa

24. artikulua. Langile publikoak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langile, irakasle, osasun eta ikerkuntza arloko langile diren biktimei behar diren eskubideak, baimenak eta lizentziak, bai eta administrazio-egoerak ere onartuko zaizkie, biktimea

direla frogatzen baldin bada, kasuko eremuko araudiaren esparruan, eragingarria izan daitezen haien babesa eta laguntza integrala jasotzeko eskubidea. Halaber, lanpostua atentatuak kaltetutako langilearen berezitasun fisikoetara eta psikologikoetara egokituko dela ziurtatuko da, bai eta haren egoerari ondoen egokitzen zaion lanpostura atxikiko zaiola ere, eta herriz aldatzea ekidinen da, non eta interesdunak ez duen espresuki eskatzen.

VII. KAPITULUA.
Zerga arloko neurriak

25. artikulua. Zerga-neurriak.

Nafarroako Gobernuak, zerga arloan dituen eskumenen esparruan, egoki irizitako zerga-onuren ezarpena sustatuko du terrorismoaren biktimei diren alde eta, atentatuaren ondoriozko heriotza kasuan, ezkontidearen edo ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren bidez lotuta dagoen pertsonaren eta seme-alaben alde, baldin eta heriotzaren unean biktimarekin modu egonkorrean bizi eta ekonomikoki haren mendean bizi baziren.

VIII. KAPITULUA
Terrorismoaren biktimei
laguntzeko batzordea

26. artikulua. Sorrera, osaera eta funtzionamendua.

1. Nafarroako Gobernuak, foru lege honen behar bezalako garapena lortze aldera, Nafarroan terrorismoaren biktimei laguntzeko batzordea sortuko du, legea indarrean sartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Batzordea kide anitzekoa izanen da eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxikiko zaio.

2. Batzordea lehendakari batek, lehendakariorde batek, zazpi kidek eta idazkari batek osatuko dute. Lehendakaria departamentuko kontseilaria izanen da. Lehendakariordea barne zuzendari nagusia izanen da. Kide izanen dira Barne Departamentuko ordezkari bat, Gizarte Gaietarako Departamentuko ordezkari bat, Osasun Departamentuko ordezkari bat, Hezkuntza Departamentuko ordezkari bat eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko ordezkari bat. Kideak Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioak izanen dira, arloko burutza dutenak eta arlo bakoitzeko kontseilariak horretarako izendatuak. Batzordeko idazkari izanen da Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxikitako funtzionario bat, batzordeko lehendakariak izendatuta.

3. Batzordeak berak ezarriko du, egiten duen lehen bilkuran, zer funtzionamendu izanen duen.

4. Batzordeak ondoko eginkizunak izanen ditu, foru lege honen babesean Gobernu Kontseiluaren berariazko erabaki bidez esleidi dakizkikiokkeen beste batzuek gain:

a) Kasuan kasuko informazio eta laguntza tekniko zehatza ematea foru lege honetan aipatzen diren terrorismoaren biktimei eta familiartekoei, legediarekin bat jaso ditzaketen laguntza publiko guztiak izan ditzaten eskura.

b) Sustatzea eta bultzatzea ezen Nafarroako Gobernu departamentuek egiten dituzten dirulaguntzei eta laguntzei buruzko deialdiek kontuan hartuko dutela foru lege honetan ezarritakoa eta foru lege honetan ezarritako laguntzei dagokienez lehentasuna izanen dutela terrorismoaren biktimek, deialdi bakoizean ezarritako laguntzek eskuatzerakoan.

c) Foru lege honetan jasotako neurrien ordekoak aztertzea, biktimei eta haien familiartekoei ahalik eta ordainik onena emateko helburu nagusia lortze aldera.

Xedapen gehigarriak

Lehenengo xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak bere eskumenen esparruan ezarriko du behar adina kreditu gaitzea foru lege honetan ezarritako laguntzei aurre egiteko.

Bigarren xedapen gehigarria. Gobernu Kontseiluari baimena ematen zaio, erregelamendu bidezko garapenaren bidez, foru lege hau aplikatze eta garatze aldera kalte-ordainen zenbatekoak edo zenbateko horien ehunekoak eta egoki diren gainontzeko elementuak eguneratu ahal izan ditzan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak eta Biktimei Laguntzeko Batzordeak –haren funtzionamendua foru lege honetako VIII. kapituluak arautzen du– pertsona mehatxatuen edo babestuen inguruabarrak ezarriko dituzte, kasuan-kasuan aplikatu beharreko laguntza mota zehazte aldera eta, laguntza horiek ekonomikoak

izanez gero, zer zenbateko dagokien zehazte aldera.

Laugarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuaren finantzaketa jasotzen duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek uko egiten baldin badiote haien ikastetxeetan foru lege honetako 16.3 artikuluan ezarritako programa zaaltzera, galdu eginen dituzte dirulaguntzak.

Bosgarren xedapen gehigarria.

Foru lege honetako 18.3 artikuluan biktimen-tzako ezartzen den osasun laguntza ziurtatze aldera, Nafarroako Gobernua ziurtatuko du bada-goela gutxienez ere psikologo bat –gaitasuna eta ekintza terroristetatik heldu den krisi egoeretan eskarmentua duena– laguntza eman ahaliko diona edozein biktimari, bai Nafarroako Foru Komunitatean bai hortik kanpo.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Foru lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarririk gabe gelditzen dira.

Azken xedapenak

Azken xedapenetan lehena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, Gobernu Kontseiluaren bidez egoki diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan, foru lege hau ahalik eta ondoen aplikatze eta garatze aldera.

Azken xedapenetan bigarrena. Kalte fisiko edo psikikoengatik kalte-ordainen nahiz kalte materialen eta laguntza ekintzen eskabidea Barne Departamentuan aurkeztuko da, gertakariaren egunetik hasi eta Nazioko Gobernuaren ebazpenetik urtebetera bitarte, edo, kalte fisiko eta psikikoen kasuan, sendatu arte edo ondorioen zenbaterainokoa ezarri arte. Foru lege hau indarrean sartu aurretik gertatutako terrorismo ekintzen kasuan, eskabidea aukezteko epea 2012ko abenduran 31n bukatuko da.

Azken xedapenetan hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra; halere, hori ez da oztopo izanen bertan xedatutako 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako gertakariei aplikatzeko.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa

Apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeak Nafarroako Aurrezki Kutxetako zuzendaritza organoak erregulatu zituen, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 56.1.f) artikulua babesean, zertarako eta aipatu entitateak demokraziaren bidean jartzeko, haien kudeaketaren inguruan biltzen diren interesei leku emanaz eta organoetako eskumenak zabalduz, espezializazio printzipioari jarraituta.

7/1987 Foru Legeak kontuan hartu behar izan zuen, ezinbestean hartu ere, Estatuko araudiaren edukia, hain zuzen ere Aurrezki Kutxetako Zuzen-

daritza Organoei buruzko oinarrizko Arauak erregulatu zituen 31/1985 Legeak ezarritakoa; izan ere, aipatu legeko xedapen horren azken xedapenetan laugarrenak haren edukia, hein handi batean, oinarrizko arau deklaratu baitzuen.

Aurrerago, Auzitegi Konstituzionalaren 1988ko martxoaren 22ko epaiak Konstituzioaren aurkako deklaratu zituen 31/1985 Legeko manuetako batzuk, hain zuzen ere foru arautegiaren antzeko edukia dutenak, eta lege horren edukietako beste zenbait, berriz, ez zituen oinarritzotzat jo. Ordudanik iragandako urteak gorabehera, orain arte ez da 7/1987 Foru Legea aldatu, Auzitegi Konstituzionalaren aipatu epaiari egokitzeko.

Denbora horretan, gainera, zenbait alditan aldatu da hein batean 31/1985 Legea: abenduaren 27ko 24/2001 Legearen bidez, azaroaren 22ko 44/2002 Legearen bidez, abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bidez eta apirilaren 22ko 5/2005 Legearen bidez. Aldaketa honek helburu du 7/1987 Foru Legea egungo esparru juridikora egokitzea, baina baita Foru Komunitatearen egungo egoera politikora, ekonomikora eta sozialera ere, eta hura aplikatu ahal izatea, amaiera emanaz orain arteko salbuespen-aldiari, zeinetan Nafarroan arlo hori lege horretan xedatuaz bestela arautu baita.

Artikulu bakarra.

Nafarroako Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeko ondoko artikuluek ondoko edukia izanen dute:

Lehena.

“8. artikulua. Osaera.

1. Aurreko artikuluan aipatu diren sektoreetako ordezkariak honako ehunekoen arabera banatuko da:

a) Aurrezki kutxako ezarleek kontseilari nagusien % 30eko ordezkariak izanen dute.

b) Aurrezki kutxako pertsona edo entitate sortzaileek kontseilari nagusien % 5eko ordezkariak izanen dute.

c) Udallerri batean aurrezki kutxak bulego bat zabaldua badu, Udaltzarako kontseilari nagusien % 15eko ordezkariak izanen du.

d) Aurrezki kutxako enplegatuek kontseilari nagusien % 10eko ordezkari izanen dute.

e) Nafarroako Parlamentuak kontseilari nagusien % 30eko ordezkari izanen du, parlamentu-taldeen artean proportzionalki banatuta. Betiere, parlamentu-talde bakoitzak gutxienez ere kontseilari orokor bat izanen duela bermatuko da.

f) Izaera kulturala, zientifikoa, ongintzakoa, hiritarra, ekonomikoa edo profesionala duten korporazioek, elkarteek edo fundazioek kontseilari orokorren % 10eko ordezkari izanen dute, baldin eta aurrezki kutxaren jarduketan eremuan ezarrita badaude, batez ere entitatearen jatorrizko jarduketan eremuan, ordezkari sozial edo ekonomiko nabarmena badute eta aurrezki kutxen tamaina sozial edo sektorialarekin lotutako eremuetan jarduten badute. Entitate horien izena berariaz jaso beharko da aurrezki kutxaren estatutuetan.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eta kargua uzten duen kontrol batzordeari dagokie foru lege honetan agindutakoa betetzen dela bermatzeko ardura, kontseilari orokorrak hautatzeko prozesuei dagokienez.

2. Pertsona edo entitate sortzaileek dagokien ordezkari erabiltzerik ez badute edo erabili nahi ez badute, ordezkari hori gainerako taldeen artean hainbanatuko da, kontuan hartuta administrazio publikoen ordezkari eta zuzenbide publikoko entitate eta korporazioena ezin izanen dela izan, osotara, ordezkari osoaren % 50etik gorakoa.”

Bigarrena.

“9. artikulua.- Kontseilari orokorren baldintzak.

Kontseilari orokorrek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Pertsona fisikoa izatea eta Nafarroako Foru Komunitatean izatea ohiko bizitokia.

b) Adinez nagusia izatea eta ez egotea ezgaitua.

c) Zein aurrezki kutxatarako izendatua izan den, horretako ezarlea izatea, bi urtetik gorako antzintasuna izanik hautatzeko unean, eta, kargua onartzen duen unean foru lege hau garatzen duten arauetan ezartzen den gutxienezko gorako mugimendua edo batez besteko saldoa izatea kontuetan, baldin eta ezarleen taldearen izenean hautatua izan bada.

d) Aurrezki kutxarekin bere kasa nahiz beste pertsona edo entitate batzuen izenean hitzartutako betekizunak bete izana.

e) Foru lege honetako 11. artikuluan ezarritako bateraezintasunik ez izatea.”

Hirugarrena.

“14. artikulua. Udalbatzetako ordezkarien hautaketa.

1. Udalbatzek zuzenean izendatuko dituzte beren kontseilari nagusiak, erregelamendu bidez zehaztuko den prozedura baten arabera, aurrezki kutxak bulegoa zabaldua duen udalerrietako udalbatzen ordezkari.

Udalbatza baten ordezkari bezala kontseilari nagusi izendatua izateko, foru lege honetako 9. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta ezin izanen da 11. artikuluan adierazitako bateraezintasun kasuetako ezeinetan ere egon.

2. Toki korporazioek, baldin eta beste aurrezki kutxa baten jarduteko esparru berean edo hein batean berdinean lan egiten duen aurrezki kutxa baten sortzaileak badira, ezin izanen dute lehendabizikoaren ordezkari izendatu.”

Laugarrena.

“22. artikulua. Osaera eta eginkizunak.

1. Administrazio kontseilua da aurrezki kutxaren finantzetako administrazio eta kudeaketa lanen eginkizuna duen organoa, bai eta gizarte ongintza lanarena ere.

2. Kontseilariak ez dira hamaika baino gutxiago izanen, ez eta hogeita bat baino gehiago ere.

3. Administrazio kontseilariaren batek kargua uzten badu edo haren izendapena atzera botatzen bada, ordezkariak beteko du haren tokia gelditzen den aldi osoan.

Ordezkari talde bakoitzetik, xede hauetarako soilik, administrazio kontseilari adina ordezkari izendatuko dira, haiek izendatzen diren prozedura bera erabiliz.”

Bosgarrena.

23. artikulua. Ordezkariak.

Administrazio kontseiluak guztien interesak ordezkariak ditu, eta lan horretan talde guztiek hartuko dute parte, foru lege honetako 8. artikulua batzar orokorreko kideentzako ezarritako proportzio eta ezaugarri berdinekin. Hala ere, bereizkuntza hauek egiten dira:

a) Batzar orokorrak izendatuko ditu ezarleen ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, talde horretako kontseilari nagusiek proposatuta eta azken horien artetik.

Ezarleen ordezkarietarako, talde horretako kontseilari nagusiek hautagaiak proposatu ahalko dituzte, guztira zenbat diren, kopuru hori zati zortzi egitetik ateratzen den zenbatekoan gutxienez ere.

Dena den, behar diren profesionaltasun behar-kizunak bete bai baina kontseilari nagusi izanen ez diren bi pertsona izendatu ahal izanen dira, gehienez ere.

b) Batzar orokorrak izendatuko ditu pertsona edo entitate sortzaileen ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, talde horretako kontseilari nagusiek proposatuta eta beraien artetik.

c) Batzar orokorrak izendatuko ditu udalbatzetako ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, udalbatza horietako ordezkari diren kontseilari nagusiek proposatuta.

Talde horretako kontseilari nagusiek hautagaiak proposatu ahalko dituzte, guztira zenbat diren, kopuru hori zati hamar egitetik ateratzen den zenbatekoan gutxienez ere.

Izendapena udalbatzetako ordezkariak diren kontseilari nagusien aldekoa edo profesionaltasun behar-kizunak betetzen dituzten hirugarren pertsonen aldekoa izan ahalko da, baina azken horiek ezin izanen dira bi baino gehiago izan.

d) Batzar orokorrak izendatuko ditu aurrezki kutxako enplegatuen ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, talde horretako kontseilari nagusiek proposatuta eta beraien artetik.

e) Batzar orokorrak izendatuko ditu Nafarroako Parlamentuaren ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, talde horretako kontseilari nagusiek proposatuta eta beraien artetik, parlamentu-taldeen artean aniztasun irizpideak aplikatuta.

f) Batzar orokorrak izendatuko ditu izaera kulturala, zientifikoa, ongintzakoa, hiritarra, ekonomikoa edo profesionala duten korporazio, elkarte edo fundazioen ordezkari izanen diren administrazio kontseilariak, talde horretako kontseilari nagusiek proposatuta eta beraien artetik.”

Seigarrena.

“33. artikulua. Osaera.

1. Kontrol batzordeko kideen kopurua seitik hamarrera bitartekoa izanen da, eta Batzar Nagusiak aukeratuko ditu administrazioko kontseiluko kide izaera ez duten bere kideen artean. Batzar Orokorrean ordezkaturik dauden sektoreek ordezkariak izan beharko dituzte batzordean.

Administrazio kontseilarietzat xedatuari jarraikiko zaio hautagaitzak aurkezteko.

2. Gainera, Nafarroako Gobernuak gaitasun eta prestakuntza tekniko egokiko pertsonen artean izendatutako ordezkari bat ere izan ahalko da kontrol batzorde horretan. Batzordearen bileretara hitzarekin baina botorik gabe joanen da.

3. Aurreko idatz-zatian aipatu den Nafarroako Gobernuaren ordezkaria kenduta, kide baten kargu uzte edo izendapenaren atzera botatzea gertatzen bada agintaldia bukatu baino lehen, kide horri dagokion ordezkariak beteko du haren tokia gelditzen den aldirian. Ordezkari talde bakoitzean, soilik idatz-zati honetan aipatzen diren xedebetarako, kide adina ordezkari izendatuko dira, haiek izendatzeko prozedura bera erabiliz.

4. Kontrol batzordeak batzordeburu bat eta idazkari bat izendatuko ditu bere kideen artetik.

5. Kontrolerako Batzordeak eskatzen duen orotan, zuzendari nagusia bileretara joanen da, hizpidearekin baina botorik gabe.”

Xedapen gehigarria

1. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak legea garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren arauzko xedapenak emanen ditu.

2. Erregelamenduzko xedapen horiek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, aurrezki kutxek beren estatutu eta erregelamenduak arau berrira egokituko dituzte eta Nafarroako Gobernuari igorri, onets ditzan.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe geldituko dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta berariaz geldituko da indarrik gabe Aurrezki Kutxetako Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeko xedapen gehigarria.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, obren kontrataziorako eta laguntza teknikorako kontratu publikoak, esleitu, bete eta likidatzeari buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, obren kontrataziorako eta laguntza teknikorako kontratu publikoak, esleitu, bete eta likidatzeari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, idazki honen bidez, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, jabeldura aurkeztu dio Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren kontratuen esleipenari, betetzeari eta likidazioari buruz Nafarroako Gobernuak garaturiko politika orokorra dela eta.

Zioak

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldea kezkatuta dago proiektuak idazteko, lanak esleitzeko eta obrak likidatzeko laguntza teknikorako kontratuen esleipenaren emaitza dela eta.

Azken urteotan, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak urteko txostena egiten du eginiko kontratuen esleipen eta likidazioei buruz eta Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordera igortzen du, honek azter dezan.

Zalantzarik gabe, ona eta egokia da Gobernuak jakinaraztea egiten dituen kontratazioei buruzko datuak, alde batetik, eta kontratazio horien emaitzei buruzkoak, bestetik, bereziki Herri Lan Departamentuak eginiko kontratazioei dagokienez; izan ere, jokamolde hori gastu publikoarekiko gardentasunaren seinale da.

Hala ere, datuak eskura izanda, txostena zehazki aztertu ahal izan dugu eta zenbait ondorio atera ditugu, Gobernuarekin egiaztatu eta eztabaidatu nahi genituzkeenak. Hain zuzen, horixe da jabeldura honen zio nagusia, eta espero dugu baliagarria izatea kontratazioaren arloko kudeaketa hobetzeko eta gastu publikoaren kontrol-maila handitzeko.

Jabelduraren testua:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jabeldura aurkeztu dio Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilariari, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, bere eskumenen arabera, azken urteotan eginiko kontratu publikoen esleipen, betetze eta likidazioei buruz, laguntza teknikoari eta lanen esleipenari dagokienez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 30ean

Eleduna: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, gure erkidegoaren lurralde oreka eta landa garapena ahalbidetzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege proiektu bat aurkez dezan, gure erkidegoaren lurralde oreka eta landa garapena ahalbidetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, 2009ko ekainaren 25ean eginiko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Nafarroa erkidego txikia da eta 600.000 biztanle inguru ditu, baina, hala ere, oso urrun dago gizarte, lurralde- edo garapen-errealitate kohesio-natu eta orekatua izatek, non herritar guztiek aukera eta baliabide, zerbitzu edo etorkizunerako hautabide berdinak dituzten.

100.000 herritar dira hiri-eremuetatik kanpo bizi direnak, hots, eremu garatu eta zerbitzu publikoak

era normalizatuan eskura daitezkeen eremuetatik kanpo, eta Gobernuak abian jarritako neurriek ez dute lortu bi eremu horien arteko desberdintasunak zuzentzea.

Nafarroako gizartearen zati txiki baten egoera are okerragoa da. Nahiko urrun dauden eta eskuarki garapen sozioekonomikotik baztertuak izan diren landa eremuetan bizi dira 20.000 bat herritar, bazterketa eta zailtasun egoeran, eta etorkizunerako aukerarik gabe.

Ezin da esan gizarte garatu, aitzindari eta orekatu batean bizi garela, lurraldearen zati bat hutsik geratzeko arriskuan dagoenean eta herritarren zati bat jarduera tradizionalak uzteko arriskuan dagoenean, horrek ekarriko baitu Nafarroako landa-kultura baliotsu eta garrantzitsua desagertzea eta galtzea.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lau hilabeteko epean aurkez dezan Parlamentuan foru erkidegoko landa garapena eta lurralde oreka ahalbidetuko dituen foru lege proiektu bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu foru lege proiektuan kontuan har dezan lurraldeen arteko desoreka egoeran edota hutsik geratzeko arriskuan dauden, zerbitzu publikoak eskuratzeko zailtasunak dituzten edo aukera sozioekonomiko urriak dituzten eskualdeen mapa. Halaber, foru lege proiektu horretan konpromisoak eta neurriak aurreikusi beharko dira, epe ertainean egoera hori aldatu ahal izateko eta berdintasuna lortzeko foru erkidegoko gainerako biztanleekin, eskubideei, zerbitzu publikoak eskuratzeari eta etorkizuneko aukerei dagokienez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 9an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontusail gehigarrien kreditua ez dadin areagotu izaera sozialeko beste kontusail batzuk murrizteagatik.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontusail gehigarrien kreditua ez dadin areagotu izaera sozialeko beste kontusail batzuk murrizteagatik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Krisiaren ondorioek ageriko eragina dute Nafarroako Gobernuak abian jarri beharreko gizarte-politikan; horren adierazgarri da oinarrizko errentaren eskaerak ezan duen igoera nabarmena. Horrenbestez, agerikoa da aurrekontuetan aurreikusitakoa ez dela nahikoa eskaera guztiei aurre egiteko.

Alde batera utzita 2008ko azken hiruhileko lan-gabeziari buruzko datuek jada adierazten zutela

laguntza horren eskaera kopuruak gora eginen zuela, beharrezkoa da bermatutako prestazio horri aurre egiteko behar diren kreditu-zabalkuntzak ez egitea izaera soziala duten kontusailen kontura, horiek ere beharrezkoak baitira krisiari aurre egiteko.

Gaur egungo egoerak ez du ahalbidetzen gastu soziala murriztea, oinarrizko errentaren kontusaila handitze aldera. Egoerak eskatzen duena da alde batera uztea nahitaezkoak ez diren inbertsio edo gastuak, gizarte-laguntzaren eskaerari aurre egiteko.

Hori dela eta, gure ustez garrantzitsua da argi uztea parlamentu-etzabaidan beharrezkoa dela Gizarte Gaietarako Departamentuaren aurrekontuak handitzea gora egiten ari den eskaerari erantzute aldera; izan ere, departamentu barruko kontusailen aldaketa soilak eginez gero, proiektu eta neurri garrantzitsuak betetzeari utziko diogu, iaz ere gertatu zen moduan.

Baina izaera soziala duten kontusailen kreditu-zabalkuntzak ez dio eragiten soilik "Irauteko baliabiderik ez duten familientzako dirulaguntzak" izeneko kontusailari; izan ere, laguntzaile pertsonalerako eta minimo bermatuentzako laguntzak eta etxeko laguntza pertsonala emateko laguntzak finantzatzeko kontusailak ere ukitzen ditu.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Gaietarako Departamentuko kontusail zabalgarririk ez daitezela handitu izaera soziala duten beste kontusail batzuk murriztearen kontura.

Iruñean, 2009ko ekainaren 30ean

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estellerrian iragan ekainaren 30ean izandako txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Estellerrian iragan ekainaren 30ean izandako txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita iragan ekainaren 30ean Lizarraldean izandako txingor-ekaitzak kaltetutakoentzako dirulaguntzak ahalbidetuko dituen erabakia har dezan, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordearen eztabaidatzeko eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Berriro ere Nafarroako eskualde batean, Lizarraldean –nagusiki Ega ibarrean eta Metautengo ibarrean, bai eta Allingo eta Ameskoako toki batzuetan ere– txingor ekaitza izan da eta horren ondorioz kalte handiak izan dira bai nekazaritzan bai azpiegituretan, bai eta bertako biztanleen ondasun pribatuetan ere.

Naturak berak eragindako egoera horren ondorioz, behin eta berriro gertatzen baitira, parlamentu-talde sozialistak lege proposamen bat erregistratu zuen, eragindako kalteei orokorrean eta modu azkarrean erantzuteko, kontuan hartu gabe

zer hondamendik eragin dituen edo non gertatu diren. Hala ere, proposamen hura lege bihurtu arte, beharrezkoa da akordioak bultzatzea eta neurriak hartzea, mozio honen kausa den ekaitza bezalakoek eragindako kalteei erantzuteko.

Hala, iragan ekainaren 30ean, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak aho batez onetsi zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen zenbait neurri har zitzan Lodosan eta inguruko herrietan izandako ekaitzaren ondorioz kaltetutakoei laguntze aldera.

Normala denez, administrazio publikoen koordinazioa ezinbestekoa da garaiz eta modu egokian iristeko dagokin kalteen zatia estaltzera, kasu kasuko aseguruak ez badute estaltzen. Hala ere, lehendabizi kontuan hartu behar dugun kontua da herritarrak kotzientziatzea, halako egoerarako aseguruak izan ditzaten.

Koordinazio horri dagokionez, bai Tokiko Administrazioak, bai Foru Administrazioak, bai Estatuak ahaleginak batu behar dituzte halako gertakariak nekazaritzako ekoizpenean eta herritarren etxebizitzetan eta jabetza pribatuetan eragiten dituzten kalteak arintzea lortzeko.

Era berean, Landa Garapenerako Departamentuak neurri zehatzak har ditzake kaltetutako nekazariei laguntzeko, hala nola horiei baimena ematea erabateko hondamenaren ondorioz uztatu ezin daitezkeen zereal-lursailak erretzeko.

Hori guztia ikusirik, parlamentu-talde sozialistak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du txosten bat presta dezan iragan ekainaren 30ean Lizarraldean –nagusiki Ega ibarrean eta Metautengo ibarrean, bai eta Allingo eta Ameskoako toki batzuetan ere– izandako ekaitzak eragindako kalteei buruz. Txosten horretan jasoko da ukitutako eremuaren mugatze geografikoa, bai eta izandako galeren zenbatespena ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegituretan izandako kalteak balioztatu ondoren kaltetutako udallerriekin

bilera egin dezan eta laguntza-lerro bat ezar dezan, talde sozialistak Parlamentuan aurkeztutako foru lege proiektuan ezarritako ildoari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitatean izandako uholde, haizete eta abarren ondorioz kaltetutako pertsonen laguntze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Agrupación Española de Entidades Aseguradoras de los Seguros Agrarios Combinados, S.A. (Agroseguro) premiatzen du arindu dezan aseguratutako ustiategietan izandako kalteen tasazio-prozesua eta kaltetuei dagozkien kalteordainak ordain diezazkien uzta osoa galdu den kasuetan, aseguru-kontratuetaurreikusitako epeak bete arte itxaron gabe.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren menpe dagoen Nekazaritzako Aseguruen Estatu-entitatearen aurrean susta dezan beharrezkoak diren azterlan teknikoak egitea, lehenbailehen sartze aldera egu-

rrari dagozkion kalteak zurezkoen laborantzen asegurueta, halako moduz non berme horrek babestuko dituen bai landareen gaitasun produktiboa mantentzeko beharrezkoak diren kostuak bai etorkizuneko uztetan izan daitezkeen galerengatik kalteordainak.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du balora dezan errenta aitorpe-nean kontuan hartu beharreko modulu fiskalak murriztea, ustiategiak kaltetutako eremuan dituzten nekazariarentzat.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri zehatzak har ditzan kaltetutako nekazariari laguntzeko, hala nola horiei baimena ematea erabateko hondamenaren ondorioz uztatu ezin daitezkeen zereal-lursailak erretzeko.

Iruñean, 2009ko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoa osatzen duten udalekin, eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egite aldera.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoa osatzen duten udalekin, eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egite aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoa osatzen duten udalekin, eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egite aldera.

Zioen azalpena

Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluari eskatu zitzaion Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoa prestatzeko; izan ere, Nafarroako Lurralde Estrategiarentzat eskualde hori funtsezkoa da foru erkidegoaren jasangarritasunarentzat.

2007-2009 urteetarako Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoa erreferentziazko testu bat da, non zehaztu, programatu eta finantzatzeko baitira Foru Administrazioak populazioa sendotzeko eta

eskualdeko jarduera ekonomikoak bultzatzeko abian jarri beharreko jarduketak.

Etxebizitzaren arloan, oinarrizko jarduera gisa aurreikusi zen Etxebizitza eta Lurzoru Publikoaren Plan bat ezartzea, alde zuzenetik eginda beharrezkoak diren azterlanak gaur egungo egoera, eraikitako etxeen berriazko arazoak eta populazio-guneen garapena ezagutze aldera.

Aipatu planaren helburuetako bat da etxebizitzaren eta eraikinen zaharberritzea sustatzea eta, hala, eraikinak berreskuratzea alokairuzko etxebizitzak egiteko.

Pirinioen Garapenerako Plan Estrategikoa osatzen duten udalerrietan badira udal titulartasuneko eraikinak, plan aurreikusitako jardueren beharra dutenak, horiek berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egin ahal izateko.

Edonola ere, etxebizitza beharizan bat da, baina etxebizitza bat eskuratzeko aukera ematea Pirinioetako udalerririk bezalako eskualdeetan erronka gisa hartu behar da eta erronka horri erantzun azkarra eta eraginkorra eman behar zaio, ez badugu nahi populazio-gune horiek hutsik geratzea eta, ondorioz, Pirinioetako lurralde-oreka eta -egonkortasuna galtzea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmenak sina ditzan Pirinioetako Plan Estrategikoa osatzen duten udalerriekin, horiek eraikinak berreskuratu eta alokairuzko etxebizitzak egiteko proiektuak aurkezte aldera.

Iruñean, 2009ko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da premiazko laguntza zuzenak abian jar ditzan, hein batean arintze aldera esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larria.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriaren entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita premiazko laguntza zuzenak abian jar ditzan, hein batean arintze aldera esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larria.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua-

ren eta hurrengoan babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larriaren ondorioz, abeltzainak diru galerak izaten ari dira esne-ekoizpenari dagokionez. Bitartean, esnearen industriak esnea inportatzen du produkzio-kostuetatik azpitiko prezioetan. Nafarroan ekoizten den esnea kalitate handiko produktua da, eta segurtasun eta trazabilitateari buruzko berme osoa eskaintzen du.

Nafarroako Parlamentuak eskatu nahi du kontrola dadin Europar Batasuneko kide diren beste estatuetatik sartzen den esnea; hain zuzen, berme horiek betetzen ez dituen eta produkzio-kostuen azpitiko prezioetan ekartzen dena.

Azken urteotan, gure lurraldeko esnearen sektoreak berregituratzen sakona pairatu du. Horren ondorioz, ustiatzeki beren tamaina berregokitu behar izan dute eta inbertsio handiak egin behar izan dituzte lehiakortasuna hobetzeko eta esne-ekoizpenaren eskakizun berrietara egokitzeko, esnearen kalitateari, animalien ongizateari eta ingurumenari dagokionez.

Hala ere, inbertsio horiek guztiak eta sektoreak lortutako profesionalizazio maila altua ez dira islatu ekoizleek merkatuan eskuratzen dituzten prezioetan. Hala, esnearen merkatuaren egoerak eragin du tamaina egokia eta profesionalizazio maila handia duten esne-ustiategiak eta ekoizle txikiak (baserritarrak) egoera larrian egotea, langintza horretan ez jarraitzearen mugan. Horren ondorioz, sektore osoaren egoera kritikoa da.

Esnearen sektorea sustatzeko, azkartasunez jardun behar da, 2007ko udazkenean egin zen moduan; orduan abeltzaintzako krisiari aurre egiteko larrialdi plan bat onetsi zen, eta haren bidez abeltzaintzaren sektorea babestu zen, premiazko laguntza zuzenen bidez ("de minimis" izeneko araua). Modu berean jokatu beharko genuke esnearen sektoreak pairatzen duen egoera larriari aurre egiteko eta, hala, sektoreari laguntzeko premiazko neurriak jarri beharko lirateke abian.

Ikusten ari garenez, marka zuriek kalte handia egiten diete ekoizleei, jatorrian esneagatik bidezko prezioak jasotzeko dagokionez. Lehenik eta behin, ezin dugu ahaztu Nekazaritzako Politika Bateratu-

aren aldaketaren ondorioz, esnearen sektoreari dagokionez, 2015ean esne-kuoten sistema desagertu egingen dela.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du premiazko laguntza zuzenak abian jar ditzan, hein batean arintze aldera esnearen sektorea pairatzen ari den egoera larria.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gobernu zentralarekin batera neurri arau-emaileak adostu ditzan etiketatzea aldatzeko, halako moduz non osagaiak eta ekoiztu eta ontziratatu den tokia agertuko baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du behar diren neurriak ezar ditzan saiheste aldera ekoizpen-kostuen azpitiko prezioa duen esnea sartzea atzerritik.

Iruñean, 2009ko uztailaren 22an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da webgune bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko garraiobide kolektiboaren erabilerarako.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita webgune bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko garraiobide kolektiboaren erabilerarako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da webgune bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko garraiobide kolektiboaren erabilerarako.

Zioen azalpena

Agerikoa denez, gero eta ohikoagoa da teknologia berrien erabilera gure jardura profesionalaren garapenerako eta beharrianak asetzeko; hala, egunero baliatzen ditugu herritar gisa ditugun betebeharrak betetzeko edota laneko, aisialdi-ko edo bestelako beharrianak asetzeko.

Horrekin lotuta, Administrazioak gero eta egin-kizun garrantzitsuagoa dauka teknologia berrien

bidez informazioa emateari dagokionez; izan ere, informazioa askotarikoa eta edozein gairi buruzkoa izan daiteke.

Hala ere, sozialisten parlamentu-taldeak uste du oraindik ere asko dagoela egiteko herritarren ematen zaien informazioaren arloan, eta, hori dela eta, ekimen hau aurkeztu dugu.

Egokia litzateke, baita beharrezkoa ere, webgune batean biltzea garraio publiko kolektiboarekin zerikusia duten informazioak, bai errepide bidezko garraioarenak, bai tren bidezkoarenak eta baita aire bidezkoarenak ere. Bertan jasoko lirateke maiztasunari buruzko jakingarri guztiak, baita eta garraio publiko kolektiboa erabili behar duten herritarrek beharrezko duten informazio guztia ere, jakin dezaten zer aukera dituzten eta une bakoi-

tzean beren beharrianak asetzeko egokiena hauta dezaten.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du webgune bat egin dezan, haren bidez emate aldera herritarrek behar duten informazio guztia Nafarroako edozein garraio publiko kolektibo erabili ahal izateko, bai errepide bidezko garraioarena, bai tren bidezkoarena eta baita aire bidezkoarena ere.

Iruñean, 2009ko uztailaren 29an

Eleduna: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Abaunzko haitzuloaren sarbideak eta barnealdea txukundu ditzan eta neurriak har ditzan ager daitezkeen aztarnak behar bezala zainduko direla ziurtatze aldera.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Abaunzko haitzuloaren sarbideak eta barnealdea txukundu ditzan eta neurriak har ditzan ager daitezkeen aztarnak behar bezala zainduko direla ziurtatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Aragoiko hedabide batean agertu eta zenbait hedabide nazionalak zabalduko berri batek dioenez, Zaragozako Unibertsitateko zientifiko talde batek txosten bat argitaratu du nazioarteko aldizkari zientifiko batean, eta txosten horren arabera, Ultzamako Arraitz herriko Abaunzko haitzuloan harri bat aurkitu dute, Abaunzko inguruaren paisaia zehazten duen ebakiz betea. Hori da, ziurrenik, Europako maparik zaharrena.

Horraino berri onak, baina aurkikuntzak agerian utzi du, baita ere, Abaunzko haitzuloaren inguruak eta sarrera erabat utzita daudela, sasiz eta zaborrez beteta, eta edozeinek sartu eta aztarna arkeologikoak, mapa grabatua duten harrien

moduan gizakien iraganari buruzko aurkikuntza garrantzitsuak izan daitezkeenak, hondatu edo ostu ditzakeela.

Erabaki proposamena:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Abaunzko sarrerak eta barnea txukun ditzan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezko neurriak har ditzan ziurtatzeko ager daitezkeen aztarnak behar bezala zainduko direla, gero ikertu ahal izateko.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 5ean.

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko kanpaina bat abian jar dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko kanpaina bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Bizi dugun krisi ekonomikoaren ondorioz, asko dira proposatu dutenak hausnarketa egitea azken urte hauetan abian jarri dugun eredu ekonomikoaren inguruan. Eztabaida konplexu horretan sartu gabe, noizbait heldu beharko bazaio ere, Nafarroa Baik uste du erakunde publikoek eta gizarte-erakundeek lagundu dezaketela hobetu daitezkeen jarrera sozial batzuen berrikusketa egiten.

Zalantzan jarritako gaietako bat da lehen munduko gizarteetan egiten den kontsumo mota.

Jasangarria ez den kontsumo mota bat da, ez soilik ingurumenaren ikuspegitik, bai eta ikuspuntu ekonomikotik ere. Ezin dugu jarraitu kontsumitzen dugun moduan kontsumitzen, ez eta neurri berean kontsumitzen ere.

Hori dela eta, beharrezkoa da kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko jarrera hartzea, “zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto” ezaugarri duen eredu neoliberalaren aurrean.

Eguneroko bizitzako beste alderdi batzuetan bezala, beharrezkoa da informazioa eta norbanakoaren trebeziak indartzea aukera egiteko garai; hori dela eta, garrantzitsua da erakunde publikoek ere jokabide arduratsuagoak sustatzea, ikuspuntu kritiko batetik, eta, hala, aurre egitea marka handiek egiten duten ahalegina, modu oldartsuan kontsumi dezagun.

Horrekin lotuta, uste dugu Gizarte Gaietako Departamentuko kontsumo alorrak, kontsumitzailen eskubideak bidegabekieretatik eta gehiegikerietatik babesteaz gain, kontsumo ereduak ere transmititu behar dituela.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontsumo arduratsu eta kontzientearen aldeko kanpaina bat abian jar dezan, murriztu, berrerabili eta birziklatzearen irizpidea oinarritzat hartuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontsumo arduratsu eta kontzienteari buruzko gida bat argitara dezan.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 14an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan sei hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa kanpoan kontratatzea arrazoizkoa ote den aztertzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan sei hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa kanpoan kontratatzea arrazoizkoa ote den aztertzeko

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Duela gutxi, Comptos Ganberak txostena egin du Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz. Txosten horretan, ondorioen eta gomendioen ataleko 2. helburuan, hauxe esaten da:

“2. helburua. Kontratu esleitzean indarrean dagoen kontratazioari buruzko araudia bete den egiaztatzea.

10. Kontratazioaren espedientea berrikusi ondoren, ondorioztatu da laguntzarako kontratuei buruzko prozedurei jarraikiz izapidetu dela, oro har. Hala ere, indarrean dagoen araudiak eskatzen du besteren baliabideen bidez osasun zerbitzuak emateko itunak edo kontratuak egin aurretik

kontuan hartzea norberaren baliabideen erabilera. Hori dela eta:

- Komenigarria litzateke kontratu interes publikorako beharrezkoa edo komenigarria izateari buruzko justifikazioa indartzea.

- Komenigarria litzateke, halaber, modu egokiagoan justifikatzea norberaren baliabide publikoen bidez zerbitzua emateko ezintasuna, eta ezintasun hori teknikoki aztertzea, bai eta zerbitzua norberaren baliabideen bidez emateak ekarriko lukeen kostua ere”.

Bestalde, txostenaren 19. orrialdean hauxe esaten da:

“Gure gomendioa da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zerbitzuek azter dezaten, kontratu hau amaitu baino lehen eta bere egiazko emaitzak, kostua eta tartean dauden gainerako inguruabar objektiboak kontuan hartuta, arrazoizkoa den 2012tik aurrera kanpoan kontratatzen jarraitzea pertsona talde horri ematen zaion osasun prestazioa”.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan sei hilabeteko epean, Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa kanpoan kontratatzea arrazoizkoa ote den aztertzeko. Horren arrazoizkotasuna behar bezala justifikatuta ez balego, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua premiatzen du bere gain har dezan osasun prestazio hori zuzenean ematea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu konpromisoa har dezaten aipatu azterlanaren emaitzak onartzeko eta, zerbitzu hori kanpoan kontratatzeko beharra edo komenigarritasuna justifikatuta ez balego, horretarako dirulaguntza ken dezaten 2011ko aurrekontuetatik eta aipatu kontratua suntsiaraz dezaten.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 31n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuan eztabaidatu eta adostu daitezen Foru Hobetzea aldatzeari buruzko ekimen guztiak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Parlamentuan eztabaidatu eta adostu daitezen Foru Hobetzea aldatzeari buruzko ekimen guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa da Nafarroari dagozkion eskubide historikoak hein batean jasotzen dituen araua, eta, ondorioz, bertan dago jasota Nafarroak Espainiako Estatuaren barruan duen eskumen-esparrua.

Parlamentu-talde honen ustez, gure eskubide historikoak garatzea eta baliatzea funtsezkoa da foru erkidegoaren garapen ekonomikoa eta soziala bermatzeko, bai eta Nafarroako herritarrek dagokien askatasun-mailaz gozatu ahal izateko ere.

Aurreko legegintzaldian, Nafarroako Parlamentuak lan-talde bat jarri zuen abian, aipatu lege organikoaren erreformaren oinarriak finkatzeko xedearekin; hala ere, ezta adostutako ondorioak eta puntuak ere ez ziren gauzatu. Eta hori izan da hamar erkidegotik gora direnean indarrean dituzten estatutuak aldatzeko prozesuak hasi dituztenak –batzuek amaitu ere egin dituzte–.

Hori dela eta, eta kontuan hartuta Nafarroari dagozkion eskubide historikoen aitortpenak ez duela aurrera egin azken 25 urteetan, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak uste du Nafarroarentzat premiazkoa eta ezinbestekoa dela Parlamentuan eztabaida abian jartzea, aipatu lege organikoak beharrezkoa duen erreforma aztertze aldera.

Hala ere, Nafarroako lehendakari Sanz jaunak, udako berotasunean, uztailan, azaldu zuen Foru Hobetzearen erreforma erabat zatikakoa eta mugatua egiteko asmoa, hauteskundeak aurreratu gero legegintzaldiak izan behar duen iraupeari buruzkoa, alde batera utzita garatu gabe dauden eskumen-arlo garrantzitsuak, bai eta Parlamentuaren erabakiak ere, zeinen bidez eskatzen baitzen Nafarroari dagozkion eskubidea Europako erakundearen organoetan –esaterako, Ecofinen– zuzenean parte hartzeko.

Hala, parlamentu-talde hau sinetsita dago Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren erreforma sakon batek ahalmen handia izanen lukeela garapen ekonomikoa eta sozialari eta askatasunaren garapenari dagokienez, eta uste du, halaber, gai hori Parlamentuan bultzatu eta zehaztu behar dela. Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentuko eztabaida eta adostasunean oinarritu ditzan Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren beharrezko erreformari buruzko ekimen guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herritarrek ordezkatzen dituen organoa den aldetik, lan egiteko konpromisoa agertzen du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren erreformak ekar dezan Nafarroako herritarren eta erakundearen erabakitzeko gaitasuna berreskuratzea eta berrezartzea, bai eta Nafarroaren eskumenekoak diren gaiak aztertzen diren organo eta erakundeetan –Estatukoak nahiz nazioartekoak– berezko nortasunarekin parte hartzeko duen eskubidean sakontzea ere.

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin gazteekin lan egiten duten gizarte erakundeekiko lankidetzaren programak abiaraz ditzan.

NAFARROA BAI ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita etorkin gazteekin lan egiten duten gizarte erakundeekiko lankidetzaren programak abiaraz ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Parlamentu-talde sinatzaileek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak

Ez da asko bilatu behar prentsa nazionalen gazte etorkinen arteko gatazkei buruzko berriak aurkitzeko. Gazte banda batzuen izenak ezagunak dira; beste batzuenak, ez hainbeste. Beste erkidego eta herrialde batzuetan bandak daudela eztabaidaezina da, eta Nafarroa ez da hain desberdina.

Aste honetan, Erakundeekiko Harremanetarako Batzordean, Ágora elkarteak gai horri buruzko azalpenak eman ditu, eta bertan egon ginen talde guztiok lagungarritzat jo genuen emandako informazioa. Nafarroa ez dago errealitate horretatik kanpo. Bestalde, errealitate hori irudi zinematografikoekin parekatzen da zenbaitetan, eta, horren

ondorioz, beldur eta segurtasun faltaren sentsazioa zabaltzen da.

Gazteek euren artean harremanak izateko eta taldeetan biltzeko joera izatea naturala eta onurgarria da, eta ez dago inolako arrazoirik joera hori gaitzesteko eta taldeen artean gatazkak izan direla aurrez pentsatzeko. Gazteen kultur taldeak ere badaude; hori ere errealitate ukaezina da, dramatizatu behar ez dena.

Ardura politikoak eskatzen digu zerbait egitea eta begiak ez ixtea zalantzarik gabe aukera gisa hartu behar dugun egoera honen aurrean.

2005ean, Nafarroa sartu zen poliziak arlo horretako prestakuntza jaso behar zueneko autonomia erkidegoen artean. Erabaki hori hartzeko zenbait irizpide hartu ziren kontuan, hala nola etorkinen kopurua, migrazio fluxua eta abar.

Poliziaren jarduna beharrezkoa da delituak egiten direnean, baina, horretaz gain, bada alde zuzeneko jarduerak. Prebentzio-ekintzak indartu behar ditugu. Poliziaren jarduerarekin batera jardura sozial bat ere abian jarri behar da, kultura eta ohitura desberdinak elkarri egokitzea ahalbidetzeko. Talde horiei estrategiak eskura jarri behar zaizkie, gizartearen txertatu eta parte hartu ahal izan dezaten, Nafarroako gazteriak egiten duen modu berean.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzaren programak abian jar ditzan Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren, Hezkuntza Departamentuaren, Gizarte Gaietarako Departamentuko Gazteria sailaren eta gazte etorkinekin lan egiten duten gizarte-erakundeen artean, kulturen arteko egokitzapena eta partaidetza soziala sustatzeko, eta, hala, gatazka sozialak sortzen dituen arazoak ekiditeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Etorkinak Artatzeko Bulegoak lankidetzaren sare bat sor dezan, sistematizatu ahal izateko gazte taldeekin jarduten duten erakundeek bitartekaritza komunitarioaren alorrean egiten duten lana, halako moduz non elkarte

horiek teknikak edo estrategiak eskuratu ahal izanen baitituzte, gatazkak kudeatzeko duten gaitasuna hobetze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-eremuak bila ditzan, banden auzia era orokor eta koordinatuan lantzeko, ezertan galarazi gabe Toki Administrazioak alor horretan dituen eskumenak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza eman diezaien gazte

talde horiengana hurbiltzera, horiek ikertzera eta horietan esku hartzera bideraturiko proiektuei, taldeen artean eta gainerako herritarrekin izan daitezkeen gatazkak konpontzeko eta prebenitzeko metodo gisa.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal,
Samuel Caro Sádaba eta Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan baimendu genetikoki eraldatutako inolako nekazaritza-produkturen entsegu edo laborerik.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dezan baimendu genetikoki eraldatutako inolako nekazaritza-produkturen entsegu edo laborerik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) ingurumenean askatzeko esperimentera oinarrituta dago zalantzan jartzen den eredu zientifiko batean. Horrenbestez, halako laboreak ugaltzea arriskutsua izan daiteke biodibertsitatearentzat eta osasunarentzat. Aurretik suma ezin daitezkeen ondorioak eragin ditzake kaltetutako ekosistemetan.

Labore horiek ingurumenerako eta nekazaritzarako izan ditzaketen arriskuak batzuk dira produktu toxikoen erabilera areagotzea nekazaritzan, kutsadura genetikoa, lurzorua kutsadura, biodibertsitatearen galera, intsektuek eta belar gaiztoek erresistentziak garatzea edota bestelako organismoetan kalteak eragitea. Ekosistemetan izan ditzaketen ondorioak atzeraezinak dira eta ezin da alde aurretik jakin nolakoak izanen diren.

Egiaztatuta dago genetikoki eraldatutako organismoak lantzeak kutsadura-arrisku handia dakarrela landareentzat eta animalientzat, labore horiei ez bazaizkie mugak jartzen. Aire libreko laboreetan ezinezkoa da kontrolatzea labore naturalak ez direla gurutzatzen genetikoki eraldatutakoekin polinizazioaren bidez. Halaber, ezinezkoa da jakitea giza kontsumorako zer animalia elikatu diren jaki transgenikoekin, eta horren ondorioz, ezin da kutsadura kontrolatu elikakate osoan, kontsumitzailearen aukera askearen printzipioa faktikoki deuseztatzen da eta zalantzan jartzen da herritarrek elikagaien arloko segurtasunerako duten eskubidea.

Transgenikoak eskala handiko esperimentera bat dira, eta esperimentera horretan erabiltzen da alde aurretik ikusi ezin diren ondorioak eta eragin kaltegarriak dituen teknologia. Arriskutsuak dira gure osasunarentzat, inork ezin baitu bermatu kaltegarriak ez direnik, ondorio txarrak dituzte ingurumenerako, kutsadura genetikoa eragiten dute –haizeak kutsatutako polena nora eraman, hango laboreei eragin ahal die– eta elikagaiak eskuratzeko arazoak areagotzen dituzte; izan ere, multinazionalen organismo horien patenteak beraienez ziurtatzen dituzte, zeinen bidez horien produkzioa eta merkaturatzea kontrolatu ahal baitute.

Hori dela eta, hainbat herrialdek debekatu egin dituzte –duela gutxi Alemaniak, baina lehenago Frantziak, Austriak, Luxenburgok edo Greziak, Europar Batasuneko kideen artean–. Gainera, kontsumitzaile eta ekologista elkarte gehienak ere horien aurka daude. Hala ere, Espainiak labore horien zabalkundea errazten jarraitzen du, autonomia erkidegoen onespenerekin.

Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, 2009ko abuztuaren 14an bi ebazpen argitaratu ziren, zeinen bidez zenbait laborerik esperimentera egiteko baimena ematen baitzitzaien, alde batetik unibertsiteari eta, bestetik, halako teknikekin lan egiten duen enpresa bati.

Jakina da Nafarroan badirela genetikoki eraldatutako laboreak, eta horrek arrisku handia dakar Nafarroako produktuentzat; izan ere, horien etorkizun estrategikoa, Europar Batasunak zehazturiko kalitate-markan oinarritua –jatorrizko deitura

babestuak, jatorrizko deiturak eta produktu ekologikoak—, erabat bateraezina da genetikoki eraldatutako laboreekin egiten diren praktika okerrekin eta labore horien irudi txarrarekin.

Gertagarria da labore transgenikoak Nafarroan zabaltzea eta nagusitzea, ez badira premiazoak eta egokiak diren neurriak hartzen, zuhurtziaren printzipioari jarraikiz.

Bestalde, Nafarroan lantzen diren transgeniko-
ei buruzko informazio publikoaren faltak urra deza-

ke ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko oinarrizko eskubidea.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan baimendu genetikoki eraldatutako inolako nekazaritza-produkturen entsegu edo laborerik.

Iruñean, 2009ko irailaren 18an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz